

Emakumeak eta gizonak munduan



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTeko LANIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO - EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Emakumeak eta gizonak munduan





Gidaliburu hau EducAcción proiektuaren barruan dago. Programa honen bitartez, Hegoak –Erromako ASAL eta Madrilgo ACSUR-Las Segoviasen laguntzarekin– bi helburu bete nahi ditu: batetik, heziketa komunitatearen eta beste erakunde batzuen esku jartzea prestakuntza lanetarako laguntza materialak eta baliabideak; eta, beste alde batetik, mundu globalizatuan Garapenerako Hezkuntzak dituen erronkei buruzko gogoeta eta eztabaida prozesuak bultzatzea eta horren inguruko proposamenak egitea.

Proiektu hau babesten du:



Comisión Europea

Agiri hau Europako Erkidegoaren laguntza finantzarioarekin egin da. Gidaliburu honen edukia egileen erantzukizunpekoa da, eta inolaz ere ez da ulertu behar Europar Batasunaren jarrera islatzen duenik.

Edizioa eta egokitzea:



Ekonomi Zientzien Fakultatea (UPV/EHU)
Lehendakari Aguirre etorbidea 83 • 48015 Bilbao
Tfnoa.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40
E-mail: hegoa@bs.ehu.es

Campus-eko Liburutegia, 138 kutxatila (UPV/EHU)
Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz
Tfnoa.: 945 01 42 88 • Faxa: 945 01 42 87
E-mail: hegoa@vc.ehu.es

www.hegoa.ehu.es

Irudiak: Cécile Bertrand

Lege-Zenbakia: Bi-1419-05
Euskarazko itzulpena: Labayru Ikastegia
Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.
Inprimaketa: Lankopi, S.A.



Jatorrizko edizioa:
Femmes / Hommes dans le monde
Direction de l'Égalité des Chances
Ministère de la Communauté française Wallonie-Bruxelles,
avec la collaboration de Le monde selon les femmes.
Illustrations: Cécile Bertrand
Bruxelles 2004

Aurkibidea

Hitzaurrea 5

Aurkezpena 6

1 Eskolako berdintasunetik laneko berdintasunera 7

2 Emakume solidarioak 23

3 Indarkeriarik ez 31

4 Publizitatea, jasangaitza edo miretsia? 39

5 Bizitza afektiboa eta bizitza sexuala 47

Gaien aurkibidea 57

■ Hitzaurrea

Gaur, atzo bezala, ez da gauza bera mutiko edo neskato jaiotzea. Haztean, jolastean, telebista ikustean, ikastean, maitemintzean, elkarrekin bizitzean, jokabideak eta zereginak oso desberdinak dira gizartean, norberaren sexuaren arabera.

Belgikan, legeak gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna berresten du. Eguneroko bizimoduan, ordea, desberdintasun bat edo beste gertatzen da beti jokabideen eta ideien ondorioz. Izan ere, hezkuntzaren arloan, ikasketen eta lanbideen aukeraketan eta familian bertan zein familiatik kanpo duten zereginean, emakumeek eta gizonak ez dute modu berean jokatzeko. Hala ere, arrazoï nagusia ez da desberdin jaio izana, desberdin izaten ikasi izana baizik. Eskolak, gurasoek, lagunek eta inguruneak ez dute gauza bera espero eurengandik.

Dena den, berton, behintzat, berdintasuna onetsitako eskubidea eta onartutako printzipioa da. Beste leku batzuetan, beste kontinente batzuetan edo gugandik hurbilago, Europan, egoera beste era batekoa izan daiteke. Eskolara joatea, lan egitea, bikotekidea aukeratzea eta dirua irabaztea eta kudeatzea gizakion oinarritzko eskubideak dira. Nolanahi ere, eskubideok ez zaizkie beti neskato eta emakumeei aitortzen, oraindik askok eta askok gizonak baino beherago daudela uste dute-eta. Badago bereizkeria horiei aurre egiterik. Bestela, gogoan izan, esate baterako, orain dela gutxi, 1948an, Belgikako emakumeek ezin zutela bozkatu.

Eskuliburu honek 12-15 urte arteko neska-mutikoei proposatzen die munduko emakumeen eskubideen gaineko iritzia goitik behera aldatzeko. Bost kapitulutan, bizitzako alderdi guztiak jorratzen ditu –besteak beste, eskolako ohiturak, bizitza afektiboa eta sexuala...–, eta eskubide horiek hobeto aditzera ematea eta gazteak eskubideok errespetatzen ez dituzten egoeren inguruan sentsibilizatzea du helburu nagusi. Sexuen arteko berdintasunaren garrantziaren inguruko kontzientzia sustatzen badu eta, gaur egun berezkoak direla uste badugu ere, berdintasunerako eskubideok lortzeko gaingintu egin behar izan diren oztopoen berri ematen badu, bere helburua bete egingo da.

Hervé HASQUIN

Hervé HASQUIN

Walonia-Bruselako Erkidego Frantseseko

Gobernuko ministro-presidentea,

Aukera Berdintasunaren arduraduna



Aurkezpena

Emakumeak eta gizonak munduan material didaktiko erabilgarria da hezkuntza esparruan generoko desberdintasunen gaiari ekiteko, bai eskolan zein hezkuntza ez formaleko esparruetan.

Bereziki interesgarria iruditzen zaigu egileek proposatu duten planteamendu pedagogikoa, gaietako bakoitza informazio argi eta eguneratuarekin sartzeko baitute, Iparreko eta Hegoko zenbait herrialdetako egoerak konparatzeko parametroak ezartzen baitituzte eta leku ugarietako gizarte erakundeek sustatutako proposamen positiboak aurkezten baitituzte, emakumeek pairatzen dituzten bazterketak gainditzeko.

Esker bereziak eman nahi dizkiegu honakoei: Le Monde selon les femmes, Cécile Bertrand eta Direction de l'Egalité des Chances del Ministère de la Communauté française Wallonie-Bruxellesi, material hau euskara eta gaztelaniara itzultzeko eman diguten aukera eta adeitasunagatik.



Eskolako berdintasunetik laneko berdintasunera

■ 1. Aurrerapenak eta desberdintasunak hezkuntzan

Nazioarteko lege eta hitzarmen askok neska-mutiko guztiei hezkuntzarako eskubidea bermatzea dute helburu. Hori horrela izanik ere, munduko herrialde askotan nesken eta mutilen arteko desberdintasuna dago oraindik, eskolan bertan eta, ondorioz, helduak direnean izango duten lanean.

Hurrengo orrialdeetan, ohiturak eta pentsaerak astiro-astiro bilakatzen direla adierazten duen informazioa aurkituko duzu, eta nesken zein mutilen arteko desberdintasuna oso goiz eta, sarritan, eskolan bertan hasten dela konturatuko zara.

Umeen Eskubideen Nazioarteko Hitzarmena, 1989

28. artikulua

“Estatu alderdiek [...] guztiontzako derrigorrezko eta doako lehen hezkuntza ezartzen dute.”

29. artikulua

“Estatu alderdiek hitzartu egiten dute neska-mutilen hezkuntzaren helburua [...] neska-mutilak prestatzea izango dela. Horrela, bada, gizarte askean bizimodu arduratsua izango dute, eta, hori lortzeko, ulermena, bakea, tolerantzia, sexuen arteko berdintasuna eta herri guztien, talde etniko nazional eta erlijioso guztien zein indigenen arteko adiskidetasuna izango dituzte oinarri.”

■ Belgikan


Neskek eta mutilek ez dute beti eskolara joateko aukera berdinak izan. Beherago, zenbait data garrantzitsu daude, neskak eskolatzeko prozesuan lortutako aurrerapenen adierazgarri.

1960. urteaz geroztik, eskola mistoa da. Neskak eta mutilak berdin-berdinak dira, eta irakasleek ez dute euren arteko desberdintasunik egiten. Oro har, denok nesken eta mutilen arteko baterako hezkuntza eta berdintasuna onartzen baditugu ere, errealitateak egiaztatu egiten du eskolan, gizarte-an eta familian bezala, nesken eta mutilen arteko desberdintasunak sortu eta sendotu egiten direla.

Eskolan bertan, aukera-berdintasuna sustatu beharra dago, gainerako arloetan benetako berdintasuna lortu ahal izateko; esate baterako, politikan eta lanean.

- Antza denez, herrialde batzuetan neskak eskolara joaten dira, eta, ondoren, lan egiten dute.

- Hemen, lan egiten dute, eta, ondoren, lan egiten dute, eta, ondoren, lan egiten dute...



Bazenekien...?

1864	Isabelle Gatti de Gamondek neskontzako bigarren hezkuntzako lehen eskola sortu zuen Bruselan, hezkuntza-egitasmo osoa eskaintzen zuena behe-mailako bigarren irakaskuntzarako.
1880	Bruselako Unibertsitate Askeak emakumeak onartu zituen. Ondoren, 1881ean, Liejako Unibertsitateak onartu zituen; 1882an, Ganteko Unibertsitateak; eta 1920an, Lovainako Unibertsitate Katolikoak.
1884	Isala Van Diestek medikuntzako kontsulta ireki zuen. 1873an, Lovainako Medikuntza Fakultateak ez zuen Isala onartu, baina 1877an bere diploma lortu zuen Bernan (Suitzan). Belgikako emakumeek medikuntzan jarduteko aukera izan zezaten, errege-dekretua idatzi behar izan zuten berariaz.
1888	Kasazioko Auzitegiak Marie Popelin, Zuzenbideko lizentziaduna, bota zuen Abokatuen Elkargotik. Epaileak emakumeen izaera fisiko eta psikiko "ahulean" eta familiako zein etxeko zereginen garrantzian oinarritu zuen bere erabakia. Izan ere, zeregin horien guztien ondorioz, emakumeek ez zuten astirik, gaitasunik eta indarrik lanbideko borrokei eta nekeei aurre egiteko. Bizitza osoan zehar borrokatu zen, abokatutzan jarduteko beharrezko zina egin ahal izateko.
1890	Apirilaren 10eko Legeak berariazko eskubidea eman zien emakumeei, unibertsitateko ikasketa guztiak egiteko, Medikuntza eta Farmazia ere bai.
1892	Isabelle Gatti de Gamondek unibertsitate aurreko atala eratu zuen, duela 28 urte neskontzat sortu zuen bigarren hezkuntzako lehen eskolan.
1907	Neskontzako lehen institutua sortu zen Ganten. Bertan, goi-mailako bigarren irakaskuntza ere ematen zutenez, neskek unibertsitatean sartzeko aukera zuten.
1925	Zientzia eta Arteetako ministroaren ekimenaz, estatuko neskontzako erdi-mailako eskolak lizeo bihurtu zituzten, eta, bertan, mutilentzako egitarau bera ematen zuten. Horrela, bada, neskak unibertsitatean sartu ahal ziren, epaimahai nagusitik igaro gabe ¹ .
1947	Zuzenbidean diplomatutako emakumeek euren lanbidean jardun ahal izan zuten.
60ko hamarkada:	Eskolak misto egin ziren; lehenengo eta behin, lehen hezkuntzakoak; ondoren, bigarren hezkuntzakoak.

¹ Baronne Boël, Duchêne C., *Le Féminisme en Belgique, 1892-1914*, CNFB, Brusela, 1955, 144. or.

■ Espainiako estatuan

Beste herrialde batzuetan bezala, emakumeak hezkuntzara modu masiboan sartzearen fenomeno gauza berria da. II. Errepublikan, lehen hezkuntza doakoa izaten hasi zen, eskolatzeari derrigorrezkoa bihurtu zen eta sexuen berdintasuna aldarrikatu zen hezkuntzan. Baina estatu frankistaren lehenengo ekin-tzetako bat baterako hezkuntza bertan behera uztea izan zen (1936), eta, horren ordean, eskola bereiztuak ezarri zituen.

1970eko Hezkuntzako Lege Orokorren zain geratu beharko dugu, gela mistoak berriro orokortzeko. Geroago, 1990eko LOGSE legearekin, hezkuntzaren sexismoari buruzko hausnarke-ta sakonagoa egin zen, eta baterako hezkuntza proposatu zen, curriculumaren zeharkako ildo bezala.



Bazenekien...?

1857	Moyano Legea. Lege horrekin, lehen aldiz Espainian, neskak derrigorrez eskolatu behar ziren. Hala ere, nesken hezkuntza desberdinaren kontzeptzioa mantentzen zen, curriculum zehatzarekin eta debeku zorrotzekin.
1858	Maistren Eskola Normal Nagusia sortu zen. Goian aipatutako legearen ondorioetako bat da, baina, 1880an, artean ez zen Natur Zientzia, Fisika edo Geometria ikasten bertan.
1871	M ^a Elena Masserasek Saboyako Amadeo erregearen baimen berezi bat lortu zuen, bigarren hezkuntzako ikasketak egiteko eta gero Unibertsitatean jarraitu ahal izateko.
1876	Hezkuntzako Erakunde Libre sortu zen. Erakunde horrek emakumeen hezkuntzaren eta baterako hezkuntzaren alde egiten zuen, azken hori hezkuntza misto gisa ulertuta. Hori kontzeptu iraultzailea zen.
1882	M ^a Dolores Aleu Riera Medikuntzako lizentziatura lortzeko gradu azterketa egin zuen lehenengo emakumea izan zen.
1910	Unibertsitate ofizialeko ikasketetan modu librean matrikulatzeko aukera ezarri zen lehen aldiz –alde aurretik agintariei kontsultatu beharrik gabe–.
1941	Concepción Arenal gizonen arrokekin jantzita sartu zen Zuzenbide Fakultatean.
1970	Hezkuntzako Lege Orokorra: mutil eta nesken arteko banaketa ezabatu zen, eta ikasgela mistoak sortu ziren.
1990	Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea (LOGSE). Hezkuntza ez sexistaren beharra nabarmendu zen eta baterako hezkuntza planteatu zen eskoletarako proposamen gisa.

Iturriak: Duby, G.; Perrot, M. (zuz.) (1993): *Historia de las mujeres*. 4 eta 5. liburukiak. Madril. Taurus.
Anderson, B.S.; Zinsler, J.P. (1991): *Historia de las mujeres*. Una historia propia. 2. liburukia. Bartzelona, Editorial Crítica.
http://www.personal.us.es/alporu/historia/mujer_educacion.htm

■ Hegoaldeko herrialdeetan

UNICEFen arabera, eskolara joateko adina badute ere, garapen-bidean dauden herrialdeetako 120 milioi inguru neska eta mutiko ez dira eskolara joaten. Eurretatik, bi heren, hau da, 80 milioi inguru, neskak dira. Munduan, mila milioi analfabeto daude ia-ia, eta, eurretatik, bi heren emakumeak dira. Esate baterako, 2000. urtean, Nigerren, gizonen %79 eta emakumeen %92 analfabetoak ziren².

1960. urtetik aurrera, ahalegin handiak egin dira hegoaldeko neska eta mutil gehiago eskolatzeko. Eskolan prestatutako neska eta mutilen kopurua boskoiztu egin da, eta alfabetatutako helduen proportzioa %50ekoa da gaur egun, lehengo %30aren aldean³.

Nolanahi ere, eskolako atea gero eta zabalduago daude neskentzat eta eskolatzeko prozesua luza-tu egiten da. Guztientzako derrigorrezko eskola lortzeko eta gurasoak hezkuntzaren garrantziaren inguruan sentsibilizatzeko asmoz, nazioan bertan zein nazioartean lege murriztaileen aurka egin-dako ahalegin bateratuen emaitza izan dira aurrerapen horiek⁴.

Kongon



Mutilak baino neska gutxiago joaten dira eskolara. 1999. urtean, lehen hezkuntzako eskolako matrikulen adierazlea %66,5ekoa zen mutiletan; eta %50,2koa, nesketan⁵. Edonola ere, guraso batzuk nesken hezkuntzaren alde daude zenbait arrazoiengatik: euren garapen pertsonala eta onespén soziala hobetu egiten da, gurasoei hobeto lagundu ahal diete zenbait zereginetan, neskek erkidegoa-ren eta herrialdearen garapenean parte hartzen dute, soldatapeko lana lortzeko aukera gehiago dituzte...

Bangladeshen



Labur esateko, mutilak baino neska gutxiago matrikulatzen dira eskolan, batez ere landa-ingurunean. Horrez gain, oro har, neskek 12-14 urte dituzte-la uzten dute eskola⁶. Neskak gazte-gazte ezkontzen direnez (“ezkontza goiz-tiarra”)⁷, euren ikasketak eten egin behar izaten dituzte. Bangladeshen, nes-ken hezkuntzaren inguruko jarrera aldatzen hasi den arren, guraso askoren ustez xahuketa itzela da alaben hezkuntzan denbora eta dirua inbertitzea, “nola edo hala” ezkondu egin beharko direlako eta beste familia batean eta batentzat lan egingo dutelako. Beraz, ezkontzeko aukera paregabea sortzen denean, alaba eskolatik ateratzen dute. Ezkondutakoan, eskolara joaten jarraitu nahi badute ere, eragotzi egiten diete eta debeku hori legezkota da.

² *The World's Women 2000: Trends and Statistics*, Nazio Batuak, NY, 2000.

³ *Les femmes dans la mondialisation, Progrès et inégalités dans les pays du Sud*, NLZN, 2001, 35. or.

⁴ Joni Seager, *Atlas des femmes dans le monde*, Autrement argitaletxea, 2003, 78. or.

⁵ EFA Global Monitoring Report *Education for All*, UNESCO, 2002, 245. or.

⁶ *Las mujeres en la globalización*, NLZN, 2001, 35. or.

⁷ *Matrimonio precoz*, UNICEF – Innocenti Ikerketa Zentroa, Florentzia, Italia, 7. zk., 2001eko martxoa.

■ Zergatik ote dago alde hori hegoaldeko herrialdeetako neskak eta mutilak eskolaratzeko orduan?

Batetik, nesken hezkuntzaren inguruko **estereotipo*** sexista zehatz batzuek ez dute neskak eskolaratzeko prozesua onartzen hegoaldeko herrialdeetan.

Hona hemen zenbait adibide:

“Neskak eskolatzeak ez du ezertarako balio. Euren lekua ez dago lanean, baizik eta etxean, euren adimengaitasunak mutilenak baino mugatuagoak direlako.”⁸



“Neskek ezkontzea dute helburu nagusi. Beraz, eskolara luzaroan joanez gero, ezkontzeko aukera gutxiago izango ditu.”



“Ikasketen eraginez, emakumeak menderakaitzak eta harroputzak dira.”



“Euren izaeragatik, emakumeak ez dira gizonak bezain adimentsuak.”

Bestetik, familien eta herrialdeen ohiturek eta txirotasunak ere zerikusi zuzena dute hegoaldeko herrialdeetako neskak behar bezainbeste ez eskolatzearekin.

Zenbait gizartetan, klanak senarra aukeratzen die eta neskak zer adinetan ezkonduko diren erabakitzen du. Sarritan, neskek jaio diren unetik bertatik dakite norekin ezkonduko diren.

- ◆ Ohitura batzuei esker, Indian batez ere, neskak truke-diru moduan erabiltzen dituzte.
- ◆ Batzuetan, pertsona batek zorren bat duenean eta inolaz ere itzultzerik ez duenean, espeziean hartzen du bere konpromisoa eta jaioko den umea eskaintzen dio hartzekodunari, neskatoa bada. Unea iristen denean, neskatoa ematen diote gizonari eta berak bere jabea dela uste du. Batzuetan, berarekin ezkontzen da edo semeari ematen dio!

* **Estereotipo:** Pertsona, giza talde, eta abarri buruz banan-banako azterketarik gabe eratzen den aurretiazko iritzi-multzoa, mota osoaz izaten den iritzia banako bakoitzari sistematikoki ezarritako sortua (Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoa). Gehienetan, estereotipoek ez dute oinarririk, uste edo balorazio subjektiboetan oinarrituta daude eta ez datoz bat errealitatearekin.

- Aristotelesen esanetan, “emakumea ez da hain indartsua eta hain altua, eta, horren ondorioz, ez da hain azkarra.”



- Baboa halakoa!
Mundu guztiak daki
minus bider minus plus
dela!!!



⁸Joni Seager, *aip. lana*, 78. or.

Txirotasunaren eta neskak eskolatzeko prozesuaren arteko lotura

Oro har, familiak dirurik ez duenean, lehenengo eta behin neskak ateratzen ditu eskolatik. UNIFEMek⁹ 2000. urtean argitaratutako txostenaren arabera, herrialde batzuetan lotura zuzena dago txirotasunaren eta bigarren hezkuntzako eskolan matrikulatutako nesken kopuruaren beherakadaren artean. Azterlan batek egiaztatu egiten du aztertutako 16 herrialdeetatik 12 herrialdetan neskak eskolatzeko indizeak behera egin zuela herrialdeko zor publikoak gora egin zuen neurrian¹⁰.

Herrialde bateko zor publikoa handitu egiten denean, herrialdeak aurreztu egin behar du, eta hezkuntzaren arloko gastua izaten da gehien murrizten dena.

Hori dela eta, gurasoek umeak eskolatu behar dituzte, eta diru asko gastatu behar dute (eskolako materiala, uniformea, matrikula-eskubideak...), euren seme-alabek eskolara joateko aukera izan dezaten. Sarritan, hegoaldeko herrialdeetako familia txiroek ezin diete gastu horiei aurre egin.

Horrez gain, hegoaldeko gizarteetako neskek etxeko lanak egin ohi dituzte (ur-hornikuntza, egur-bilketa, neba eta ahizpa txikien heziketa eta zainketa...), eta diru-sarrerak eroaten dituzte etxera, merkatuetan edo etxeko zerbitzari lan egiten dute eta. Beraz, alaba eskolara joanez gero, lan egiteko beso-pare bat gutxiago eta/edo diru-sarreraren iturri bat gutxiago dute. Izan ere, elikadura segururik ez duten familia txiro gehienek ez dute arrisku hori euren gain hartu nahi¹¹.

Familiak dirua ordaindu behar dute alabak eskolatzegatik, eta, horrez gain, nolabait esateko, dirua galtzen dute eskolatzeko dituztenean. Hori dela eta, seme-alabaren bat eskolatzeko aukera dutenean, familiak mutikoei ematen diete lehentasuna.



Argazkia: Carlos Askunze.

⁹ *El progreso de las mujeres en el mundo*, UNIFEM, 2000.

¹⁰ Sophie Charlier eta Hélène Ryckmans, "Les mouvements de femmes pour une autre mondialisation" in Samir Amin/François Houtart, *Mondialisation des résistances. L'État des luttes 2002*, Aukeren Munduko Foroa, L'Harmattan, 2002, 247. or.

¹¹ *Un compromiso con las mujeres del mundo* liburuxkako sarreraren egokitzapena, UNIFEM.

Bazenekien...?

Zer da UNIFEM?

Emakumeentzako Nazio Batuen Garapen Funtza da (UNIFEM).

1976. urtean sortu zenetik, Funtza erakunde autonomiaduna da gaur egun, eta Nazio Batuen Garapen Egitasmoarekin (NBGEekin) batera lan egiten du.

UNIFEMek mundu zabaleko emakumeen eta euren familien bizi-kalitatea hobetzea du helburu nagusi, eta, hori lortzeko, honako hau egiten du:

- ◆ Emakumeen erakundeei eta sareei laguntzen die euren eskubideak babesteko gaitasuna sendotzen.
- ◆ Emakumeen aldeko ekintzak eta proiektuak sustatzen ditu.
- ◆ Emakumeen arazoei aurre egiteko egitasmoetarako funtsak eta laguntzak jartzen ditu abian.
- ◆ Nazio Batuen eta eskualde zein nazio mailako botereen arteko plataforma eta bitartekaria da.
- ◆ Emakumeen eskubideen inguruko jarduera egokiak dokumentatu eta zabaltzen ditu¹².

UNIFEMek gobernuekin batera egiten du lan, garapenerako politiketan emakumeen zeregina, egoera eta aldarrikapenak kontuan hartu ditzaten.

Aurrerapenak

goeko hamarkadan, benetako aurrerapenak gertatu dira: datuak ematen dituzten 128 herrialdeetatik, 52 herrialdetan lehen eta bigarren irakaskuntzako nesken eta mutilen kopurua berdina da edo 2005erako berdina izango da¹³.

Hori horrela izanik ere, sexuen arteko berdintasuna eta neska-mutilek hezkuntza izan beharreko ordezkaritza orekatua nekez lortuko dute 54 herrialdetan. Eurretatik, 16 herrialde daude Afrika Azpisahararrean, Pakistanen eta Indian¹⁴.

Nazioarteko erakundeentzat, beraz, berdintasuna lehentasunezko helburua da. Hori dela eta, 2000ko apirilean Dakarren (Senegalen) antolatutako Hezkuntzari buruzko Munduko Foroan, 155 herrialdetako hezkuntza-ministroek eta gobernu-ordezkariek neskentzako kalitateko hezkuntza bermatzeko konpromisoa hartu zuten.

Urte horretan bertan, NBEko kideak diren herrialdeek helburu nagusiak zehaztu zituzten neskek eta mutilek hezkuntza izan behar duten berdintasunari buruz (Milurteko Garapenaren Helbu-

ruen barne). Era berean, hori guztiori abian jarztean euren xedea honako hau zela adierazi zuten:

- ◆ Hemendik 2015. urtera, adingabe guztiei, neskei zein mutilei, lehen hezkuntzako ikasketa-ziklo osoa amaitzeko baliabideak ematea.
- ◆ Hemendik 2005. urtera, ahal den neurrian, eta, gehien jota, 2015. urteari begira, irakaskuntzako maila guztietan, nesken eta mutilen arteko desberdintasunak desagerraraztea lehen eta bigarren irakaskuntzetan.

Guztiontzako Heziketaren jarraipenerako munduko Txostenaren arabera (2003), 54 herrialdek helburuak ez betetzeko arriskua dute, gaur eguneko joerek irauten badute. Eskolatu gabe dauden 104 milioi neska-mutikoetatik, %56 baino gehiago neskak dira, eta alfabetatu gabeko 860 milioitik gorako pertsonen heren bi, gutxi gora-behera, emakumeak dira.

¹² *Les filles en première ligne. Des raisons à emporter pour encourager l'éducation des filles*, Elikagaien Munduko Egitasmoa – Emakumeen eta Gizonen arteko Arazoetarako Unitatea, PAM/UNESCO Lankidetza Egitasmoa – Hezkuntza Sektorea.


¹³ Zenbaki horiek hemen aurreratzen dira: *Informe mundial de seguimiento de la educación para todos – El reto de la igualdad*, UNESCO, 2003.

¹⁴ Berdina.

■ 2. Ikasketen aukeraketa

Gaur egun, iparraldeko herrialdeetan, neskek eta mutilek erabateko askatasuna dute euren kirolak, ikasketak eta lana aukeratzeko orduan. Edonola ere, joerak oso zehatzak dira nesken eta mutilen artean. Joera horiek kontuan hartuta, badirudi nesken eta mutilen aukeraketek zerikusi handia dutela euren sexuarekin edo euren sexuari lotutako zereginari buruz duten ideiarekin, benetan gustatzen zaiena alde batera utzita.

Era berean, gure aukeraketetan eragin handia dute herrialdeko errealitateak, gure hazkuntzaren gunea den gizarteak eta gurasoek zein ikastetxeak ematen diguten hezkuntzak. Beraz, gizarteak, familiak, komunikabideek eta eskolak eragin handi-handia dute gure zereginetan eta jarreretan, bai eta nesken zein mutilen aukeraketetan ere.



■ Honako adibide hauei buruz hausnartu

◆ JOSTAILUAK

Txiki-txikitatik, jostailuen katalogoak begiratzen ditugu eta “naturala” iruditzen zaigu jostailuak sexuaren arabera banatzea, hau da, mutilentzako jostailuak eta neskentzako jostailuak agertzea. Nolanahi ere, bereizketa horrek argi eta garbi adierazten digu umeak gizartearen eraginpean daudela (horra hor “desberdintasunen eraketa soziala”). Hain zuzen ere, jostailuen katalogoetan, neskei eskaintzen dizkieten jokoek “emaztearen” edo “amaren” zereginak kopiatzen dituzte, eta emakumeei atxiki ohi zaizkien estereotipoak sendotzen dituzte nesketan; esate baterako, limurketa, ezkontza, amatasuna eta etxeko garbiketa eta zainketa (panpinak, bazkaritxoak, makillajea...). Mutilei, ordea, eraikitzeko jokoak, gerrako jokoak, mekanoak, maketak... eskaintzen dizkiete. Nesken aldean, etxeko eremu mugatua baino esparru zabalagoa eskaintzen diete, beraz*. Kanpoko mundua, mundu profesionala arakatzeko aukera dute, eta ez dira eguneroko edo etxeko zereginetara mugatzen.

Jokoen arabera, neskek eta mutilek aldeztu aurretik ezarritako zereginak eta eginkizunak garatuko dituzte.¹⁵

*Hegoaren oharra: kontuan hartu behar da kasu bietan gauzarik txarrena rolek sexu biak mugatzen dituztela da. Neskei dagokionez, ez zaie gonbitea egiten esparru publikoak eskaintzen dituen aukeretan parte hartzeko. Eta mutilei dagokionez, ukatu egiten zaie esparru pribatuak interesgarri duena aztertzea eta bertan parte hartzea, hau da, autonomiaz jokatzeko, pertsonen arteko harremanetan satisfazioa lortzea, sentsazioak, emozioak eta sentimenduak identifikatzea, seme-alaben zainketa eta hezkuntza gozatzea, etab.

Egin ezazu

Jostailu-denda batera joan eta ahalik eta katalogo gehien hartu. Neskentzako eta/edo mutilentzako jostailuak zeintzuk diren zehaztu. Zer ondorio atera duzu?

¹⁵ Serge Chaumierren esanetan, “Neskek esparru pribatuak dihardute eta zeregin pasiboak dituzte”, in *Le Monde*, 2001eko abenduaren 12a.



◆ EMAKUMEAK ETA ZIENTZIAK

Iraganean, azterlan askok ziotenez, emakumeek ez zuten inolako interesik zientzietan, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun “genetikoak” zeudelako. Azterlan horien arabera, gizonek emakumeek baino gaitasun matematiko handiagoa eta espazioaren irudikapen mental hobea zuten. Batzuek “gene zientifikoari” buruz ere hitz egiten zuten. Beraz, aldeak biologikoak ziren, nonbait!

◆ IRAKASLEEN JARRERA GELAN

Ondoren, egiaztatu egin da desberdintasun hori prozesu konplexuagoaren emaitza dela eta faktore askok eragin handia dutela pertsonen aukeraketetan. Horra hor hezkuntza, komunikabideak, kultura eta irakasleen jarrera. Konturatu gabe egiten badute ere, zeresan handia dute nesken eta mutilen eskola-orientazioaren aukeraketan.

Azterlan askok¹⁶ egiaztatu dute bigarren hezkuntzako irakasle askok ohiko ereduak betikotzen dituztela ikasketak aukeratzeko orduan.

Horrez gain, badirudi matematiketako irakasleek oso ondo prestatzen dituztela euren ikasleak, unibertsitatean oso ikasketa zientifikoak egin ditzaten. Hala ere, mutilei ematen diete lehentasuna.

Era berean, askotan, bigarren hezkuntzako matematiketan porrot egiten duten neskek adarra uzten dute azkenean. Mutilek, ordea, errepikatu egiten dute, eta adar zientifikoetan geratzen dira.

Dena den, egiaztatu egin da 11 urteko neskei mutilei baino interesgarriagoak iruditzen zaizkiela natur zientziak eta ez hain interesgarriak zientzia fisikoak. Gainera, mutilek besteko emaitzak lortzen dituzte zientzietan. Beraz, badirudi neskek, bigarren hezkuntzaren hasieran, “uko egiten” dietela ikasgai zientifikoei.¹⁷

¹⁶ Hain zuzen ere, “Newtonia”: *Les filles et les carrières scientifiques et techniques* azterlana, M. Alalufen eta P. Marageren zuzendaritzapean, ULB, 2002.

¹⁷ *Qu'en est-il aujourd'hui de l'égalité des chances entre filles et garçons dans notre système éducatif*, 65. oharra, Hezkuntzaren eta Prestakuntzaren Kontseilua, Belgikako Erkidego Frantsesa, 1999ko martxoaren 5a, 32. or.

Afrikan



Afrikako Emakume Zientzialari eta Ingeniarien Sareak (RAFESIk) eta Afrikako Hezkuntzako Emakume Arduradunentzako Foroak¹⁸ zerbait egiteko erabakia hartu zuten, ikasketa zientifiko edo teknikoetan neska afrikar gutxi zeudela ikustean. Emakumeentzako elkarteok neskek euren buruarengan duten konfiantza indartu nahi dute, eskolako eskuliburuak eskuragarriago egin nahi dituzte eta prestakuntza hobetu nahi dute. Horretarako, bekak, eskolako liburuak eta material zientifikoa ematen dituzte.



ZIENTZIAKO 441 NOBEL SARITATIK, EMAKUMEK 12 BAINO EZ DITUZTE JASO		
Emakumeek jasotako Nobel sariak		
Fisika	1903	Marie Curie
	1963	Maria Goeppert-Mayer
Kimika	1911	Marie Curie
	1935	Irene Joliot-Curie
	1964	Dorothy Crowfoot Hodgkin
Fisiologia edo Medikuntza	1947	Gerty Cori
	1977	Rosalyn Yalow
	1983	Barbara McClintock
	1986	Rita Levi-Montalcini
	1988	Gertrude B. Elion
	1995	Christiane Nüsslein-Volhard
	2004	Linda B. Buck

¹⁸ Forum for African Women Educationalists.

■ 3. Lanaren aukeraketa

Zergatik aukeratzen ote du neska batek edo mutil batek lanbide bat beste bat hautatu beharrean? Lana aukeratzean, ikasketak hautatzean bezala, neska-mutikoak euren hezkuntzaren, kulturaren, gizartearen eta komunikabideen eraginpean daude.

Esate baterako, aldizkarietan eta publizitatean, gizonak eta emakumeak laneko “ohiko” egoeretan aurkezten dituzte sarritan. Askotan, aurkezpen horietan, emakumeak erizainak dira; eta gizonak medikuak. Emakumeak idazkariak dira; eta gizonak exekutiboak. Emakumeak saltzaileak dira; eta gizonak igeltseroak...

Halakoetan ere, ez da uste bezain agerikoa aukeratzeko “askatasuna” dugula, ez hegoaldeko herrialdeetan ez iparraldeko herrialdeetan. Izan ere, etengabe ikusten ditugun irudien eraginpean gaude.

■ Belgikan

Lanaren aukeraketari dagokionez, zenbait azterlanek egiaztatu dute emakumeek eta gizonak irizpide desberdinen arabera aukeratzen dutela lana:

- ◆ Neskek familiako bizimodua eta laneko bizimodua bateratu egin beharko dutela aurreikusten dute¹⁹. Beraz, gizonen aldean, familia zaintzeko aukera eskaintzen dien lana aukeratu ohi dute (lanordu gutxiago, bidaia gutxiago eta arratsaldeko bilerarik gabe, esate baterako).
- ◆ Neskek baino neurri handiagoan, mutilek soldata hobe eskaintzen duten lanpostuak aukeratu ohi dituzte. Neskek, ordea, euren gustuen arabera aukeratu ohi dute lanbidea.
- ◆ Neskek eta mutilek presio psikologikoak jasaten dituzte, eta, horren ondorioz, orientazio desberdinak dituzte. Halakoetan, gurasoek eta ikastetxeak zeresan handia dute. Lehen esan dugunez, irakasleek orientazio zientifiko handiagoa ematen diete erdi-mailako mutilei maila bereko neskei baino.²⁰

Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera:

- ◆ Emakumeen gustuko ikasketak medikuntzako zientziak, letrak eta irakaskuntza dira; eta gizonenak, oster, ingeniartza eta zientziak.²¹
- ◆ Emakumeen %51,5ek baino ez du lanpostua, eta, eurentatik, %37,7k lanaldi mugatua du. Gizonei dagokienez, lan-tasa %68,1ekoa da, eta %5,9k baino ez du lanaldi mugatua.²²
- ◆ Belgikako sektore batzuetan, gizon batek 100 euro irabazten duenean, emakume batek 80 euro irabazten ditu lanpostu berean.
- ◆ 1961etik 2000ra, Belgikan, gizonezkoenak zirela uste zen lanbide batzuk emakumetu egin dira: polizia agenteak, postariak, autobus-gidariak, notarioak, arkitektoak eta epaileak. Hala ere, oraindik beste lanbide batzuek emakumeak gaitzesten dituzte tradizioagatik: marinela, kalegarbitzaileak, zabor-biltzaileak, egurketa-riak, basozainak, aire-zirkulazioko kontrolatzaileak, argiketariak, iturginak eta zurginak.²³
- ◆ Hala ere, medikuntza ez da modu berdintsuan emakumetu, dermatologoek %58,5, psikiatren %54,7, oftalmologoek %50 eta pediatrian %46,4 emakumeak izan arren, kardiologoek %14,7, neurokirurgialarien %6 eta ortopedisten %5,7 baino ez direlako emakumeak.²⁴

¹⁹ *Qu'en est-il aujourd'hui de l'égalité des chances entre filles et garçons dans notre système éducatif*, 65. oharra, Hezkuntzaren eta Prestakuntzaren Kontseilua, Belgikako Erkidego Frantsesa, 1999ko martxoaren 5a.

²⁰ Berdina.

²¹ *Les femmes et les hommes: si différents ?*, INS, Info Flash, 35. zk., 2003ko martxoaren 8a.

²² Berdina.

²³ In *Le Soir*, 2002ko martxoaren 20a.

²⁴ In *La Libre Belgique*, 2003ko martxoaren 19a.

■ Euskadin eta Espainiako estatuan

Neskek eta mutilek uste dute ez dagoela desberdintasunik ez diskriminaziorik trebakuntzako orientazioaren prozesuan, baina badakite trebakuntzako profilak desberdinak direla kasu batean edo bestean²⁵.

Lanbide heziketan, mutilek nahiago dituzte eskulanak eta trebakuntzako ofizio eta profil teknikoak. Neskek, batez ere, lan administratiboekin, zerbitzuen sektorearekin eta tratu pertsonala dakarten espezialitateekin erlazionatutako lanbide heziketako ikasketak eskatzen dituzte.



GOI MAILAKO TREBAKUNTZA ZIKLOETAKO EMAKUMEAK	
Jarduera	Portzentajea
Metala / Fabrikazio mekanikoa	%9,5
Elektrizitatea / Elektronika	%9,5
Higienea / Osasuna	%84,6
Administrazioa	%77,7
Zerb. komertziala / Soziologia	%91,7
Informatika	%32,1

Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. Irakaskuntzako estatistikak, 2004.

%75EKO PORTZENTAJETIK GORA DUTEN KARRERAK		
Karrera	Emakumeak	Gizonak
Dietetika	%91,0	
Elektrizitateko Ingeniaritza Teknikoa		%87,2
Hezkuntza Bereziko Irakasle Eskola	%90,2	
Ontzigintzako Makinen Ingeniaritza		%86,6
Haur Hezkuntzako Irakasle Eskola	%89,3	
Mekanikako Ingeniaritza Teknikoa		%83,1
Gizarte Lana	%88,7	
Meatzeetako Ingeniaritza Teknikoa		%81,1
Farmazia	%84	
Antolakuntza Industrialeko Ingeniaritza		%82,1

Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. Irakaskuntzako estatistikak, 2004.

²⁵ Euskal gazteriaren portaera maskulino eta femeninoen eredu eta erreferentziak, Vitoria-Gasteiz, Emakunde, 2001.

■ Hegoaldeko herrialdeetan

Herrialdeen eta kulturen arabera, emakumeek askatasun gehiago edo gutxiago dute euren aukeraketak egiteko orduan. Dena dela, nesken hezkuntzan aurrerapenak egin badira ere, oraindik emakumeak ez daude gizonak bezain prestatuta eta gizonak baino aukera gutxiago dituzte lan-merkatuan.

Soldatapeko lana dutenean, oso gutxi irabazten dute. Sarritan, lan-baldintza txarrak onartu behar izaten dituzte (gaixotasun edo istripu aseguruak gabe, babesik gabe, amatasunagatik bakarrik gabe...), eta behin-behineko lanetarako, lanaldi mugatueta edo iraupen laburreko lanetarako kontratatu ohi dituzte.

Esate baterako, multinazionalenak diren oihal-lantegi gehienek emakumezko eskulana erabiltzen dute (%60-%90) oso baldintza gogorretan, soldata ziztrinen truke.

Bien bitartean, gure herrialdeetan bezala, familiako bizimodua, umeen zein adinekoen zainketa eta etxe-ko lanak emakumeen ardurapean daude batez ere.

Hegoaldeko herrialdeetan, biztanleen %50-%80k nekazaritzan dihardu, eta gehienak emakumeak dira. Euren lana ez dago batere onetsita. Izan ere, familiarentzako jateko guztia erein eta biltzen badute ere, etxe-ko lanen osagai baino ez dira zeregin horiek.²⁶ Emakumeek ez dute inolako soldatarik jasotzen familiaren soroetan egindako lanaren truke. Oro har, gainera, soro horiek senarrarenak edo aitarenak dira. Gizonak atzerrira esportatzeko saltzen diren laborantzetan dihardute batik bat, eta soldata jasotzen dute lan horren truke. Horrela, bada, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak indartu egiten dira.

ZURE IRITZIA ERATZEKO ARIKETA ²⁷ ADOS ZAUDE ESALDI HAUEKIN? BAI? EZ? ZERGATIK?		
	Ados nago	Ez nago ados
• Agerikoa da gizonak eta emakumeek zeregin desberdinak egiten dituztela eguneroko bizimoduan.	☐	☐
• Emakumeak hain indartsuak ez direnez, hobe da kirol berberak ez egitea.	☐	☐
• Gizonak ez dute beste aukerarik: errespetatuak izateko, ezin dute euren zeregina aldatu.	☐	☐
• Seme-alabak jaio direnean, aitek aitatasunagatik baja izan behar dute, amek amatasunagatik baja duten moduan.	☐	☐
• Negargarria da emakumeen soldata gizonena baino txikiagoa izatea.	☐	☐
• Harrigarria da benetan emakumeek sakrifikatu behar izatea etxeaz eta seme-alabez arduratzeko.	☐	☐
• Harrigarria da benetan hegoaldeko emakume nekazariak dirurik ez irabaztea euren familiarentzat ereiteagatik.	☐	☐
• Hegoaldean, desberdintasunaren arazoari aurre egiteko, neskek ikasteko aukera izan behar dute.	☐	☐
• Lanbideen izen guztiak emakumetu egin behar dira.	☐	☐
• Ustez "gizonenak" diren lanbide guztiak emakumeentzat egon behar dira zabalik (esate baterako, igeltserotza).	☐	☐
• Lanbide eta orientazio guztiak modu berean aurkeztu behar zaizkie mutilak eta neskek. Esaterako, esperientzia bera duten gizon bat eta emakume bat gonbidatu ahal dira, lanbidea aurkezteko.	☐	☐
• Harrigarria da benetan jostailuen katalogoetan joko desberdinak eskaintzea neskek eta mutilak.	☐	☐

²⁶ Joni Seager, *aip. lana.*, 68. or.

²⁷ *Les choix*, Le Monde selon les femmes, tresna pedagogikoa, 2003.

Senegalen



Senegalen egindako azterlan batek zera egiaztatu zuen: “irakasleak oso kontserbadoreak dira oraindik. Euren adina edo prestakuntza-maila edozein dela ere, mutilak ingeniariak, medikuak, katedradunak, administrazioko sailburuak, teknikariak, Errepublikako presidenteak, nazioko hezkuntza-ministroak, defentsa-ministroak... izan behar direla uste dute. Edonola ere, neskak idazkariak, erizainak, etxeko zerbitzariak... izan behar direla uste dute, gizarte-gaietako ministroak izan ahal badira ere”²⁸.

Bazenekien...?

1993ko ekainaren 21ean, frantziar komunitatean, sektore publikoak argitaratutako dokumentu guztietan agertzen ziren lanbide, kargu, gradu edo titulu guztien izenak feminizatze dekreto bat onartu zen²⁹. Ezagutzen dituzu sexu bietako lanbideen izenak?

Ez badituzu ezagutzen, zalantzarik gabe deskubritu itzazu frantziar komunitatearen web orrian:

www.cfwb.be/franca/femini/feminin.htm

Esadazu zertan diharduzun eta zer sexutakoa zaren esango dizut!

Hona hemen lanbideen zerrenda. Zure ustez, gizonak, emakumeak edo biek garatutako lanbideak dira? Ehunekotan (%tan) zehaztu proportzioa.

	emakumeak ♀	gizonak ♂
Irakaslea (bigarren hezkuntzakoa)	%.....	%.....
Saltzailea	%.....	%.....
Erizaina	%.....	%.....
Idazkaria	%.....	%.....
Ingeniaria	%.....	%.....
Mekanikaria	%.....	%.....
Garbitzailea	%.....	%.....
Polizia	%.....	%.....
Farmazialaria	%.....	%.....



Irakaslea: emakumeak %60,9; gizonak %39,1
 Saltzailea: emakumeak %75,2; gizonak %24,8
 Erizaina: emakumeak %91,7; gizonak %8,3
 Idazkaria: emakumeak %95,8; gizonak %4,2
 Ingeniaria: emakumeak %11,4; gizonak %88,6
 Mekanikaria: emakumeak %0,9; gizonak %99,1
 Garbitzailea: emakumeak %91,3; gizonak %8,7
 Polizia: emakumeak %9,6; gizonak %90,4
 Farmazialaria: emakumeak %67,7; gizonak %32,3

²⁸ *L'approche genre au Sénégal: des stéréotypes sexistes à l'équité*, Giza Baliabideen Plangintzaren Zuzendaritza, Ekonomia eta Finantza Ministerioa, Senegaleko Errepublika, 2001.

²⁹ *Mettre au féminin. Guide de féminisation des noms de métier, fonction, grade ou titre*, Belgikako Erkidego Frantseseko Ministerioa, 2. edizioa, 1997ko apirila.

JAKIN BEHARREKOA: Belgikan

Emakumeen ohiko hamar lanbideak

1. Saltzailea eta dendaria
2. Erizaina
3. Administraria
4. Administrazioko funtzionarioa
5. Bigarren hezkuntzako irakaslea
6. Garbitzailea
7. Idazkaria
8. Umezaina eta etxeko zerbitzaria
9. Garbiketako langilea
10. Irakaslea

Gizonen ohiko hamar lanbideak

1. Eraikuntzako langilea
2. Kamioilaria eta gidaria
3. Langileburua eta taldeburua
4. Peoia
5. Administrazioko funtzionarioa
6. Bigarren hezkuntzako irakaslea
7. Administraria
8. Enpresako zuzendaria
9. Autoetako mekanikaria
10. Ingeniaria

Iturria: INS, Lan-kontratuko langileei eta eroldari buruzko inkesta, 2002.



JAKIN BEHARREKOA: Espainiako estatuan

Emakumeen arteko hamar lanbiderik ohikoenak

1. Saltzaileak
2. Kudeaketa administratiboari laguntza emateko profesionalak
3. Garbiketako langileak
4. Administrazioko laguntzaileak
5. Etxeko langileak
6. Andereñoak
7. Erizaintzako laguntzaileak
8. Zerbitzariak
9. Bigarren Hezkuntzako irakasleak
10. Erizainak

Gizonen arteko hamar lanbiderik ohikoenak

1. Igeltseroak
2. Saltzaileak
3. Eraikuntzako peoiak
4. Kamioi gidariak
5. Mekanikariak
6. Zerbitzariak
7. Merkataritzako ordezkariak eta salmenta teknikariak
8. Taxi eta auto gidariak
9. Kudeaketa administratiboari laguntza emateko profesionalak
10. Nekazaritzako peoiak

Iturria: EIN 2004. Populazio eta Etxebizitza Erroldak, 2001.

Emakume solidarioak*

Indibidualismoak eta lehiakortasunak jotako mundu honetan, edozelan irabazi beharra dagoen munduan, elkartasuna inoiz baino beharrezkoagoa da.

Munduko emakume ugari jasaten duten injustiziaz jakitun, Iparreko zein Hegoko emakume batzuek elkartzeko erabakia hartu dute, euren interesak defendatzeko. Badakite elkartuta indartsuagoak direla, errazago ikustarazten direla eta aldaketarako motorra izan daitezkeela.

Elkartasun horren arrazoiei buruz eztabaidatu daiteke, herrialde gehienetan emakumeek gizonen eskubide berberak lortu dituzten garai honetan.

Baina, ikusi ahal izan dugunez, eskubide horiek ez dira beti betetzen. Emakume batzuk ezin dira euren kabuz joan botoa ematera eta eskolara, edo ezin dira modu librean ezkondu.

Hegoaldeko emakumeek haxe esaten diete Iparreko emakumeei: “Segi borrokan, lortu dituzuen eskubideak defendatzeko: kontrazepzioa, gizarte segurantz, berdintasun juridikoa...”. Borroka horietan oinarrituta, euren herrialdeetan gauzek aurrera egitea lortu dezakete, euren modura.

* **Solidarioak:** erantzukizun eta interes komunekin lotuta daudela sentitzen duten pertsonak.
(Le Robert, 2002).



Argazkia: Carlos Askunze.

■ 1. Elkartasunaren adibide bat

Gaur egun, munduko merkataritza-trukeak hegoaldeko herrialdeetako ekoizleen kalte-tan egiten dira sarritan. Bidezko merkataritzak edo merkataritza solidarioak hegoaldeko ekoizleen eta iparraldeko kontsumitzaileen arteko harremana ezarri nahi du. Horri esker, ekoizleek bidezko ordainsaria jasoko dute euren produktuen truke, bizitzeko aukera izango dute, euren familia mantenduko dute eta osasun, hezkuntza... arloko premiei erantzungo diete.

Bidezko merkataritzako produktuak erostean, kontsumitzaileek badakite kalitateko produktuak erosten dituztela eta pertsonen zein euren komunitatearen eskubideak errespetatuta ekoitzi dituztela³⁰.

Denda batzuetan, merkataritza solidarioarako egindako produktuak baino ez daude salgai. Horrela, bada, bigarren hezkuntzako zenbait eskolatan, “munduko denda gazteak” jarri dira. Ikasleek eurek zuzentzen dituzte irakaslearen ikuskaritzapean. Denda horien bidez, gazteak solidarioak dira hegoaldeko herrialdeekin eta bidezko merkataritzan inplikatzeko dira.

Zuk ze ekintza solidario
garatu duzu?

■ 2. Emakumeen mugimenduaren adibidea

Munduko herrialde guztietan, emakumeen elkarteak sortu dira herri eta hirietan, emakumeen baldintzak hobetzeko eta euren eskubideak aldarrikatzeko.



Emakumeen mugimendu horiek munduko elkartasuna sortu dute pixkanaka-pixkanaka. Interesak berberak eta aldarrikapenak antzekoak izan arren, emakumeen mugimendu bakoitzak bere kulturako eta eskualdeko ezaugarri bereizgarriak ditu.

Banaketa gaindiezinak sortu beharrean, aniztasun horrek emakumeen mugimenduen aberastasuna sustatzen du, eta, mundu zabalean edo mugetatik haratago, euren esperientziak trukatzeko, elkarri laguntzeko eta elkarren artean sendotzeko.

- Elkarrekin, ez bakarrik!




³⁰ <http://www.mission-humanitaire.com/comequit.htm#comequit> web orriaren egokitzapena.

■ 3. Zer da feminismoa*?



Emakumeek nahi duten munduan emakumeak eta gizonak berdinak izan behar badira, zergatik elkartzen ote dira gehienetan euren artean?



Pertsona batzuk solidarioak dira euren komunitatekoak ez diren beste pertsona batzuekin. Esate baterako, arrazismoaren aurkako borrokan edo etorkinen harreran.

Lehenengo eta behin, feminismoak emakumeak elkartzen ditu euren artean. Emakume batzuek beste batzuei azaldu nahi izan diete zeinen garrantzitsua den emakumeen alde borrokatzea. Elkarrekin, indar handiagoa dute, eskubideak aldarrikatzeko eta benetako berdintasunerako baldintzak prestatzeko.

Horrela, bada, Ingalaterran, XIX. mendearen amaieran, sufragistak emakumeen boto-eskubidearen alde borrokatu ziren (sufragio “unibertsala” gizonei baino ez zegokien!).

60ko hamarkadatik aurrera, Europan eta Ipar Amerikan, emakumeek kontrazepziorako eta aborturako eskubiak aldarrikatu zituzten. Geroago, lan-baldintzen berdintasuna aldarrikatu zuten, eta emakumeen aurkako indarkeria-mota guztiak salatu zituzten.

■ Afrikako feminismoa?

Emakumeen elkarteak oso ugariak dira Afrikan. Asko eta asko bete-betean borrokatzen dira emakumeen eskubideen alde: lurrerako eskubidea, segurtasunerako eskubidea, ekitaterako eskubidea eta hezkuntzarako eskubidea.

Feminismoak, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko aldarrikapenen bidezotasuna gorabehera, sarritan gizon batzuek eta emakume batzuek gaitzetsi egiten dute. Gauza bera gertatzen da Europan: batzuetan feminismoa ez da behar den moduan ulertzen, eta, askoren ustez, emakumeek gizonen lekua betetzeko, botere guztia eskuratzeko eta gizonak boteretik kentzeko egiten duten ahalegina da, besterik gabe.

◆ ESATE BATERAKO

Emakumeek Afrikako bizitza politikoan partaidetza handiagoa izan nahi dutela aldarrikatzen dute.

Aldarrikapen horrek arazoak sortu ahal dizkie zenbait gizoni. Izan ere, gizon gutxi onartzen du emakumeen ikusgarritasuna esparru publikoan. Politikan karguren bat badute, emakumeek bikoitekidearen eta familiaren kritikak jasaten dituztenez, eskualde batzuetako emakumeek politikan jarduteko asmo txikiena ere ez dute! Europan bertan ere, oso zabaldua dago emakumeen zeregina, ezeren gainetik, familiaz arduratzea dela.

* **Feminismoa:** Emakumeen eskubideak eta emakumeek gizartean duten zeregina handitu egin behar direla aldarrikatzen duen mugimendua.

■ Latinoamerikako feminismoa?

Latinoamerikan, laurogeiko hamarkadatik aurrera, hiru urtean behin topaketa feministak antolatzen dituzte, eta, bertan, kontinente zabaleko emakumeak biltzen dira.

Latinoamerikako herrialdeetan oraindik matxismoa³¹ nagusi bada ere, topaketa horiek esperientziak azaltzeko eta trukatzeko eremu garrantzitsuak dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde bete-betean borrokatzen diren emakume gehienentzat. Afrikan bezala, gai nagusiek zerikusi zuzena dute emakumeen eskubideekin: lurrerako eskubidea, elikadurarako eskubidea, osasunerako eskubidea, hezkuntzarako eskubidea, ez-indarkeriarako eskubidea, baina batez ere, lan duinerako eskubidea, euren dirua irabazi ahal izateko.



Eta gizonak?

Zenbait gizonek borroka-dinamika horrekin bat egiten dute. Nazioarteko topaketetan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko gaiak jorratzen dituzte, eta, bertan, gero eta gizon gehiagok parte hartzen du, tradizioaren arabera emakumeenak omen diren kezkak defendatzeko. Gizonen eta emakumeen arteko harremanen berdintasunaren printzipioak aldarrikatzen dituzte. Kongoko herri batzuetan, zenbait gizonen euren elkartasuna adierazten diete idazten eta irakurtzen ez dakiten emakumeei. Hala ere, oraindik bide luzea dago aurretik, gizon askok ez dituztelako euren abantailak galdu nahi eta euren interesak defendatzen dituztelako.

◆ ADIBIDEAK

Munduko elkartasun feminista: emakumeen munduko martxa³²

Emakumeen Munduko Ibilaldia Quebeceko (Kanadako) Emakumeen Federazioaren ekimenaz sortu zen 1996. urtean, eta, laster, munduko mugimendu bihurtu zen. 2000ko urrian, 161 herrialde eta lurraldetako 600 talde elkartu ziren. Mundu zabaleko milioika emakumek babestu egin zuten, euren aldarrikapenen aldeko bost milioitik gora sinadura bildu zituzten eta Nazio Batuen Erakundean aurkeztu zituzten. Benetako talde-lantzat hartutako Munduko Ibilaldiaren mugimendua bakearen Nobel sarirako izendatu zuten 2001. urtean.

Ibilaldiak ageri-agerian utzi zuen errealitate garrantzitsua zegoela emakumeen eguneroko bizimoduan: munduko emakumezkoen elkartasuna sortu egin daitekeela egiaztatu zuen. Bizi-bizirik dago leku guztietan, egunez egun, emakume guztietan, boto-eskubidearen, ur-hornikuntzarako eskubidearen, lurrerako eskubidearen, hezkuntzarako eskubidearen eta osasunerako eskubidearen alde borrokatzen direnean; bortxaketaren, eraso sexualen eta ezkontideen indarkeriaren aurka borrokatzen direnean; euren gorputza eta sexualitatea kontrolatzeko, soldata berdina lortzeko, aukera sexual guztien, bertako emakumeen eta emakume minusbaliatuen eskubideak onesteko, politikan berdintasunean parte hartzeko eta seme-alaben gaineko erantzukizunak banatzeko borrokatzen direnean.

2005eko martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, Emakumeen Munduko Martxak Gizateriarako Emakumeen Munduko Kartaren³³ mundu mailako agerpena eta errelebua emango du, Sao Paulon, Brasilen. Hori dela eta, Kartaren errelebu bat antolatuko dute mundu osoan, Kartaren edukiari buruzko sentsibilizazio eta informazio ekintzak egingo dituzte eta gobernuari eta iritziz publikoari zuzenduko zaie. Errelebua 53 herrialdetatik pasatuko da, eta 2005eko urriaren 17an amaituko da (Txirotasuna Erauzteko Nazioarteko Eguna), Burkina Fason. Kartan Munduko Martxako emakumeek eraiki nahi duten munduari buruz egiten da berba: esplotaziorik, zapalketarik, intolerantziarik eta bazterketarik gabeko mundua, non denon segurtasuna, aniztasuna, eskubideak eta askatasunak errespetatuko baitira. Mundu hori berdintasun, askatasun, elkartasun eta bakean dago oinarrituta. Karta oinarritzko printzipioak deskribatzen dituzten 31 baieztapenen inguruan dago ardaztuta.

³¹ Ideologia honen arabera [pentsaera-korrontea], gizonak emakumea menderatzen du gizartearen eta jabearen dagozkion pribilegioak ditu. (Le Petit Robert, 2003).

³² Informazio gehiago jasotzeko, web orri honetan sartu: <http://www.emakumemartxa.org/principal.html> www.marchamundialdelasmujeres.org

³³ Kartaren edukia ezagutzeko, ikus <http://www.marchamondiale.org/es/>

■ Iparraldeko emakumeen eta hegoaldeko emakumeen arteko elkartasuna

Europar, elkarte batzuek topaketak antolatzen dituzte hegoaldeko emakumeen taldeekin, eta sareak sortzen dituzte, planetako hegoaldeko eta iparraldeko emakumeen arteko elkartasuna sendotzeko³⁴.

Elkarte horiek gogor egiten dute lan, emakumeek munduan duten zeregina eta lekua onesteko eta emakumeen zein gizonen arteko berdintasuna bermatzeko.

Urtero, martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzen da.

Bazenekien...?

1998. urteaz geroztik, “Palabras”³⁵ izeneko sarea garatu zen (gaztelaniaz “hitzak” esan nahi du), posta elektronikoaren eta Interneten bidez euren historia azaldu zuten emakumeen taldeei esker. Horren ondorioz, hiru kontinentetako (Amerika Latinoko, Afrika Frankofonoko eta Hegoaldeko Europako) emakumeen taldeak batzartu egin ziren, informazioa trukatu zuten eta euren proiektuen berri eman zuten. Sareak 80 bazkide ditu hegoaldean, eta 30 bazkide Europan.

Truke eta komunikazio horiek nazioartean egiten dira, eta ikaragarri hedatu dira, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriei esker. Horrela, bada, gai berberak jorratu nahi dituzten pertsonak sarean inplikatu dira edo beste sare bat sortu dute.

palabras@mondefemmes.org

■ Emakume etorkinekiko elkartasuna³⁶

Gaur egun, etorkinen %48 emakumeak dira ia-ia, eta emakumeok dira Europako etorkinen elkarteetan gehien mugitzen direnak.

Harrerako herrialdean³⁷, emakume solidario horiek prestakuntza-elkarteak eratzen dituzte ikasketarik ez duten edo harrerako herrialdeko hizkuntza ez dakiten emakume etorkinentzat. Elkarri laguntzen diete administrazioko izapideak egiten edo lana bilatzen; kulturako jarduerak antolatzen dituzte, euren sorterriko kultura babesteko eta balioesteko; edo behar beste diru biltzen dute, hegoaldean garapenerako proiektuak abian jartzeko³⁸.

Espainiako estatuan, emakume etorkinen eskubideen alde lan egiten duten erakundeak daude. ACSUR-Las Segovias elkarteak, adibidez, Emakume Immigranteak eta Herritarren Eskubideak programa garatzen du, zeinen bitartez Espainian dauden emakume etorkin marokoarren parte-hartze sareak sendotu nahi baititu, emakume etorkinen gizarteratze prozesuak ahalbidetzeko behar diren mekanismo sozial eta juridikoak abiarazteko.

www.acsur.org/acsur/destacamos/ciudadania/index.htm

³⁴ Belgikari dagokionez, ikus *Le Monde selon les femmes* gobernu kanpoko erakundearen ekintzak. Informazio gehiago jaso nahi izanez gero, web orri honetan sartu: <http://www.mondefemmes.org>

³⁵ *Le Monde selon les femmes* erakundearen sarea.

³⁶ Immigrantea: immigrazio hitzetik dator, hau da, bizilekua topatzeko asmoz herrialde batetik bestera mugitzen den populazioa. (Le Robert 2002).

³⁷ Espainiako estatuan emakume etorkinen kolektibo ugari daude: AMDE (Emakume Dominikar Immigranteen Elkarteak), AMIR (Roquetaseko Emakume Immigranteen Elkarteak), “ABIA YALA” Emakume Immigranteen Elkarteak, ASOMA (Afrikako Emakumeen Elkarteak), ASMMAR (Emakume Marokoar Arabiarren Elkarteak), THEMIS (Immigrante, Emakume eta Umeen Elkarteak), Andaluziako Afomujer, Emakume Marokoarren Elkarteak.

³⁸ Belgikan ekimen ugari daude, esate baterako, ALEGRIA (Emakume Angolarren Elkarteak), AFECO (Emakume Kongotarren Elkarteak), Collectif des mamans d’Afrique centrale, ANACAONA (Latinoamerikako Emakumeak).

■ Munduko ekintza solidarioa: Safiya Husseiniren aldeko borroka

Interneten aroan, giza eskubideak errespetarazteko ekintza solidarioak azkar-azkar garatu daitezke.

Esate baterako, 2002ko martxoaren 25ean, astelehena, Nazioarteko Amnistiak sentsibilizatzeko eta informazioa eskaintzeko egindako nazioarteko kanpaina zabalaren ostean, France-Presse Agentziak Safiya Husseiniren absoluzioaren berri eman zuen. Izan ere, harrikatua izateko arriskuan zegoen, ezkontzatik kanpo harreman sexualak izateagatik. Hori guztiori Nigerian gertatu zen, lege islamikoa (sharia) ezartzen duten herrialdeetako batean, hain zuzen ere.

Beraz, elkarteek deiak egin ditzakete posta elektronikoaren bidez, arriskuan dauden pertsonen egoeraren berri emateko.

Mundu zabalean antzeko ekintzak garatzen dira, giza eskubideak zapaltzen edo urratzen dituzten lekuetan.

Amina Lawal beste nigeriar bat da, eta, 2003ko martxoan, harrikadaka hiltzera kondenatu zuten. Hala ere, 2003ko irailaren 25ean zigorra barkatu zioten, horrelako nazioarteko mobilizazioari esker.

Hori dela eta, nazioarteko elkartasunak emakumeen eta gizonen bizitza salba dezake, eta, horretarako, gobernuetako erakundeei zein enbaxadei eskaerak eta gutunak bidali besterik ez du, esku hartu egin behar dutela eskatzeko.

- Zertan gabiltza,
hain zuzen ere? - Ez dakit,
bada...



- sinatu

- bidali



- eta

- bizitza

- salbatzen
diogu!



FParen prentsa-jakinarazpena

SOKOTO (FPA) - Sokotoko estatuko (Nigeriako iparraldeko) Apelazio Auzitegi Islamikoak 35 urteko Safiya Husseiniri zigorra barkatu zion astelehenean, adulterioagatik harrikadaka hiltzera kondenatu ondoren. 2001eko urrian, Sokotoko Auzitegi Islamikoak heriotza-zigorra ezarri zion Safiya Husseiniri, 2001eko otsailean, dibortziatuta egon arren, neskatoa izan zuela egiaztatu zuenean eta, horren ondorioz, adulterioa egin zuela leporatu zionean. Shariaren arabera, emakume dibortzietuek berriro ezkondu baino lehen harreman sexualak badituzte, adulterioa egiten dute.

Safiya Husseiniren arazoa nazioarteko bihurtu zen, eta protestaldi sutsuak sortu zituen, Europan, batik bat. Sokotoko Apelazio Auzitegi Islamikoko presidenteak emakumeari egotzitako salaketa guztiak kendu zituen. Auzitegiak bi ordu behar izan zituen erabakia hartzeko, eta erabaki hori astebete atzeratu egin ahal izan zen, nazioarteko protestaldiei esker.

■ Ondorioa

Elkartasuna norberaren ingurunean bertan hasten da, lagunekin, familiarekin, alegia. Horrez gain, mugak zeharkatu eta oihartzun itzela izan dezake mundu zabaleko emakumeen eta gizonen bizitzan.

Era askotara izan gaitezke solidario: manifestaldiak egin ditzakegu, eskaerak sinatu ditzakegu, elkartea sortu dezakegu eskolan bertan, irakasleei eskatu diezaiekegu elkartasun proposamenak garatzeko, erakundeen ekintzak sustatu ditzakegu, “Munduko Denda Gazte” bat sortu edo bertan parte hartu dezakegu, ikasle berriei kasu egin diezaiekegu eta hitz bidegabeei erantzun diezaiekegu.



Argazkia: Carlos Askunze.

Indarkeriarik ez

■ 1. Zer da indarkeria?

Indarkeria gizaki guztien eskubideen urradura orokorra da. Horra hor bizitzarako eskubidea, segurtasunerako eskubidea, duintasunerako eskubidea eta gorputzeko zein buruko osotasunerako eskubidea.

Indarkeria munduko emakumeen lehen heriotza-eragilea da, bai eta emakumeen zein gizonen arteko desberdintasunaren ondorioa ere.

Indarkeriarik ez

Hitzezko indarkeria, psikologikoa, fisikoa, sexuala: lau indarkeria-motok ezin dira sekula onartu.

■ Zeintzuk dira indarkeria-motak?

◆ HITZEZKO INDARKERIA EDO PSIKOLOGIKOA:

Hitzezko indarkeria iseken bidez adierazten da sarritan, eta “zauri” sakonak eragin ditzake, buru-estimua gutxitzen duelako. Menderatzeko modu honek ez du marka ikusgarriarik uzten! Sarri askotan, indarkeria-mota horrek minik ematen ez duela uste dute askok. Nolanahi ere, inor ezin da bete-betean garatu, inolako eten barik irainen, mehatxuen, laidoen eta gutxiespenen helburua bada eta etengabe kontrolatzen badute.

◆ INDARKERIA FISIKOA:

Indarkeria fisikoak zeresan handiena sortzen duen indarkeria da. Pertsona batek jasandako edozein tratatu txar fisiko da indarkeria fisikoa: zauriak, kolpeak, bultzadak, oraldiak... Ondorioak larriak izan daitezke benetan, tratatu txarrak jasaten dituen pertsona hil egin daiteke eta.

◆ INDARKERIA SEXUALA:

Bi eratakoa izan daiteke:

Jazarpen sexuala pertsona batek hartutako hitzezko edo hitzik gabeko jarrera sexuala da, beti ere emakumeen eta gizonen duintasunari kalte egiten badio (esate baterako, begirada eten-gabeak, biluzten duten begiradak, esaldi zalantzarriak edo limurkeriak, proposamen lizunak, zirriak...). Indarkeria psikologikoa dela esan daiteke, eta, sarritan, beste pertsona baten gaineko boterea daukan pertsonak garatzen du.

Eraso sexualean, norbaitek beste pertsona bati, indarrez edo derrigorrean eta haren baimenik gabe, egintza sexuala inposatzen dio (esate baterako, zirri sexualak, bortxaketa, intzestua).

■ Mutilek eta neskek ikastetxean bizi duten indarkeria

Frantziako azterlan batek³⁹ egiaztatu zuen neskak eta mutilak ez direla berdinak indarkeriaren aurrean. Neskek indarkeria sexuala eta hitzezko indarkeria jasaten omen dituzte batez ere; mutilek, ordea, xantaia eta eraso fisikoak.

Indarkeria ez da bat-batean agertzen, ohartarazpenen, irainen, txantxa astunen... luzapena izan ohi delako.

Gaur egun, indarkeriaren biktimak ez izateko eta mutilen errespetua ez galtzeko, neska batzuk ez dira ausartzen nahi luketen erara janzten. Era berean, behar bada, mutilak ez dira ausartzen euren samurtasuna edo adeitasuna jendaurrean erakusten, ahultzat hartu eta gutxietsi egingo ote dituzten beldur dira-eta!

2000ko ekainean, Kofi Annanek, Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusiak, onartu egin zuen 1995ean Emakumeei buruz egin zuten Munduko Laugarren Bileraz geroztik indarkeriak gora eta gora egin duela, ia-ia leku guztietan legeak debekatzen badu ere.

■ Egitateak

Gutxienez munduko emakumeen %20k jasan ditu eraso sexual edo fisikoak, gutxienez behin euren bizitzan.⁴⁰

- ◆ Europan, lau emakumetatik batek badaki zer den basakeria fisiko edo morala⁴¹.
- ◆ Espainiar estatuan, lau egunik behin emakume bat hilik gertatzen da, berarekin bizi zen gizonaren eskutik (urtean 100 emakume inguru)⁴².
- ◆ Belgikan, emakumeen %68k hitzezko biolentzia edo biolentzia fisiko edota sexuala pairatu du⁴³.
- ◆ Portugalen: Portugaleko lau bikotetatik batek onartzen du gutxienez gertakari biolentoren bat bizi izan duela 2003an⁴⁴.
- ◆ Estatu Batuetan, 15 segundorik behin emakume bat jipoitzen dute, eta urtean 700.000 emakume bortxatzen dituzte⁴⁵.
- ◆ Hegoafrikan, 80 segundorik behin emakume bat bortxatzen dute⁴⁶.



³⁹ Azterlan estatistikoa, 2002.11.07koa, orain dela bi urte Île-de-Francetako Eskualde Kontseiluak sortutako "Jeunes violence écoute" (Gazteen Indarkeria Adi) telefono berdera egunero egindako 150-250 deietan oinarrituta egindakoa.

⁴⁰ Munduko Bankuaren zenbatespenak, 1999.

⁴¹ Élisabeth Kulakowska, "Brutalités sexistes dans le huis clos familial", *Le Monde diplomatique*, 2002ko uztaila.

⁴² Ramonet, I.: "Violencias masculinas", *Le Monde diplomatique* aldizkarian argitaratutako artikulua, 2004ko uztaila. Interneten ere bai: <http://www.monde-diplomatique.es/2004/07/ramonet.html>

⁴³ "Desvelar los datos ocultos de la violencia doméstica en la UE", Emakumeen Europako Lobbya, 2001eko txostena.

⁴⁴ *Público* Portugaleko egunkariak argitaratutako ikerketa. Interneten ere bai: <http://www.observatorioviolencia.org/informacion.asp?id=485>

⁴⁵ "Violences impunies contre les femmes", *Le Monde diplomatique*, 2001eko martxoa.

⁴⁶ The World's women 2000: Trends and statistics, United Nations, 2000.

■ Iparrean zein Hegoan, etxea da basakeria honen eszenatoki nagusia!

Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen edo emakume bortxatuen ezaugarriak ez dira bereizgarriak, ez eta gizon bortitzen ezaugarriak ere.

Nolanahi ere, emakumeek euren eguneroko bizimoduan jasaten dituzten indarkeria-egintza gehienak eurekin bizi diren pertsonen edo sarritan ikusten dituzten pertsonen garatzen dituzte. Indarkeria hori fisikoa izan daitekeen arren, psikologikoa (hitzezko erasoak, laidoak, mehatxuak, jazarpenak, itxialdiak, baliabide ekonomikorik gabe uzteko erabakiak) edo sexuala ere izan daiteke (erasoak, bortxaketak).

Indarkeria gizarte-maila guztietan agertzen da. Frantzian, eragin bikoitza du emakume gazteagoetan (20-24 urte arteko neska gazteetan), adin horretatik gorako emakumeen aldean⁴⁷.

- ◆ Espainiar estatuan, 2002 eta 2003. urteen artean, familiako esparruan eraildako emakumeen kopuruak %59ko gorakada izan zuen⁴⁸.
- ◆ Belgikan, emakumeek jasandako indarkeriaren eragileak %48,4 euren senarrak dira⁴⁹.
- ◆ Frantzian, hamar emakumetatik bat ezkontidearen indarkeriaren biktima da⁵⁰, eta, hilerio, 6 emakume hiltzen dira arrazoi horrengatik⁵¹.
- ◆ Europako Batasuneko herrialde guztietan, bost emakumetatik batek bere bizitzan zehar jasaten du senarrak edo bikotekideak eragindako indarkeria⁵².
- ◆ Japonian, emakumeen %59 etxeko indarkeriaren biktima da⁵³.
- ◆ Kenyan, emakumeen %42 etxeko indarkeriaren biktima da⁵⁴.
- ◆ Errusian, hilketetako biktimen %50 senarrek edo bikotekideek hildako emakumeak dira⁵⁵.
- ◆ Indian, ezkontutako emakumeen %40 inguruk jipoiak edo eraso sexualak jasan dituela adierazi du⁵⁶.
- ◆ Egipton, emakumeen %35ek senarrak bortxatu egin dituela adierazi du⁵⁷.
- ◆ Nikaraguan, emakumeen %28k euren bizitzan behin, gutxienez, bikotekideen eraso fisikoak jasan ditu⁵⁸.

⁴⁷ Frantzian emakumeen kontra egiten den biolentziari buruzko inkesta (Enveff), 2001eko ekaina.

⁴⁸ Nazioarteko Amnistia. Espainiako atala: "La responsabilidad de los estados frente a la violencia contra las mujeres cometida por particulares. Una asignatura pendiente en materia de derechos humanos". 2004ko martxoa. Interneten ere bai: <http://www.cgtrabajosocial.es/dh/actualidad/Infoviolge.pdf>

⁴⁹ Emakumeen Europako Lobbya, aip. lana.

⁵⁰ Hitzezko biolentzia edota biolentzia psikologikoa jasan duten emakumeak barne.

⁵¹ Frantzian emakumeen kontra egiten den biolentziari buruzko inkesta (Enveff), aip. lana.

⁵² Élisabeth Kulakowska, aip. lana.

⁵³ The World's women 2000: Trends and statistics, Nazio Batuek, 2000.


⁵⁴ *Berdina*.

⁵⁵ *Berdina*.

⁵⁶ *Berdina*.

⁵⁷ "Violences impunies contre les femmes", Le Monde diplomatique, 2001eko martxoa.

⁵⁸ Giza garapenaren munduko txostena 2000, PNUD.



Belgikan, emakumeek jasandako indarkeriaren eragileen %48,4 euren bikotekideak dira.

■ Biktimen isiltasuna...

Askotan, biktimek ez dute gertatutakoa salatzen, sistema judiziala edo poliziala ondo ezagutzen ez dute-lako (prozedurak luzeak eta korapilotsuak izan daitezke) edo erasotzaileen errepresalien beldur direlako.

- ◆ Espainiar estatuan, bikotekideen biolentzia jasaten duten emakumeen %97k ez ditu gertakari horiek salatzen.
- ◆ Frantzian, adinez nagusi diren emakumeek jasandako bortxaketaren %5 baino ez dira salatzen.
- ◆ Estatu Batuetan, tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeen %1ek baino ez dute salatzen.

Bazenekien...?

Bortxaketa: gerrako arma

Emakumeen aurkako indarkeria sexuala gatazketan sarritan erabiltzen duten gerrako arma da. Edonola ere, auzitegiek nekez auziperatzen dituzte bortxaketagileak. Esate baterako, Ruandan, genozidioan zehar⁵⁹, borrokalariek sarri askotan erabiltzen zuten bortxaketa gerrako arma moduan. Ezer egin ezinik, euren senitartekoak hiltzen zituztela ikusi ondoren, emakumeek bortxaketaren izugarrikeria eta laidoa jasan behar izaten zituzten, soldaduen esku hil baino lehen edo halabeharraren esku geratu baino lehen, behin betiko⁶⁰ laidotuta eta gaixotuta egon baino lehen edo bortxaketetan kutsatutako HIESaren ondorioz hil baino lehen.

2001eko otsailaren 22an, Hagako Nazioarteko Auzitegi Penalak (NApek) arazo handiak izan zituen Jugoslavia ohiko gatazkako zenbait bortxaketaren errudun ziren hiru bortxatzaile serbiar kondenatzeko. Historikotzat hartutako epai horren arabera, gerrako bortxaketak “gizakien aurkako krimenak” dira.

⁵⁹ Talde etniko baten hondamendi metodikoa. (Le Petit Robert, 2003).

⁶⁰ Félicité Umutanguha Layika, Pekineko Auzitegian 1995eko irailaren 1ean aurkeztutako testigantza.



Indian



Doteagatik hiltzea

Tradizio hinduan, alabek ezin dituzte familiaren lurrak jarauntsi. Ezkonsariaren sistemak etorkizuneko senarrari lurrik eza “konpentsatzea” du helburu, eta, horretarako, dohaintzak egiten dira, diruaren, urrearen edo bitxien bidez. Ezkontzaren ostean, neskaren familiak ezkonsaria ematen dio senarraren familiari.

Sistemak egiaztatu egiten du emakumeak trukerako objektuak direla, merkantziak direla ez esatearren⁶¹.

Urtero, senarrek edo euren familiako kideek milaka emakume indiar hil arte torturatu eta jipoitu egiten dituzte edo bizirik erretzen dituzte, ezkonsaria nahikoa ez bada edo ordaintzen ez bada.

Arazoa konpondu beharrean, nonahi zabaldu da, gizarte-maila guztietan, eta inork ez du ezertxo ere egiten. Dena dela, arrazoa ez da ez tradizioa ez erlijioa, Indiako gizarteak materialismorantz⁶² egindako bilakaera baizik. *Ahalik eta ondasun gehien pilatu nahi dituztenez, emakumeek gizartean duten balio bakarra senarraren etxera daramatzaten ondasunak dira. Kapitala agortutakoan, emakumeek ez dute ezertarako balio*⁶³.

Hori guztiori dela eta, Indian alaba bat izatea itzelezko zama da gurasoen-tzat, hezi egin beharko dutelako eta bere ezkonsaria ordaindu beharko dutelako, alaba ezkondu ahal izateko. Horrela, bada, amek alaba izango dutela dakitenean, abortatu egiten dute, eta, horren ondorioz, emakume gutxi daude gizartean. UNICEFen arabera, abortu selektiboen ondorioz “desagertutako” 40 milioi emakume daude, hau da, emakume izateagatik jaiotzeko pribilegiarik izan ez duten emakumeak⁶⁴.

⁶¹ *Igualdad de sexos y desarrollo, Conceptos y terminología*, Frankofoniako Nazioarteko Erakundea, 2002ko abendua.

⁶² Gozamena eta ondasun materialak helburu nagusi dituen aldatzea. (Le Petit Robert, 2003).

⁶³ Roland-Pierre Paringaux, *Meurtres en série pour cause de dot en Inde*, in “Femmes rebelles”, *Manière de voir*, 2003ko apirila eta maiatza.

⁶⁴ Marie Huret, *Le pays qui ne veut pas de filles*, in *L'express*, 2003ko abuztua.

■ Ohoreagatiko krimenak

Leialak ez direla susmatzean, munduko milaka emakume torturatu edo hiltzen dituzte urtean. Emakumeen leialtasunik ezaren inguruko susmo txikiena ere familiako gizonen (senarraren, nebaren, aitaren, lehengusuaren, amaren lerroko osabaren) ohorearen aurkako atentatua da. Halakoetan, familiak emakume susmagarria laidotzen, hiltzen edo torturatzen du, familiaren ohorea garbitzeko.

1997. urtean, familiako gizonak 300 emakume pakistandar hil zituzten “ohoreagatik”. Kopurua 5.000 emakumekoa da Jordanian. Hiltzaile gehienak fidantzepean askatzen dituzte, eta ez dituzte inoiz auziperatzen.

2000. urtean, NBEk horrelako krimenak gaitzesten zituen ebazpena onartu zuenean, 20 herrialdek ez zuten testua onartu eta honako azalpen hau eman zuten: *“Ez dago inolako alderik legez kanpoko harreman sexualak izan dituen emakumearen eta harreman horien susmagarri den emakumearen artean. Gainerakoen begiek antzemandakoak, leialtasunik ezaren inguruko susmoak gizonaren ohorea zikintzen du. Hemen, ohoreak ez du inolako zerikusirik egiarekin”*.⁶⁵

■ Emakumeen mozketak sexualak

Emakumeen mozketak sexualak emakumeen kanpoko organo genitalen erauzketa (desagerpen) osoan edo zatikakoan edo organo horien beste edozein mozketatan amaitzen diren ebakuntza guztiak dira. Helburuak, gainera, ez dira terapeutikoak, kulturalak edo beste era batekoak baizik.⁶⁶

Mozketa sexualak ondorio larriak dituzte emakumeen eta nesken osasun fisikoan eta psikologikoan.

Afrikan, erauzketa egiten den herrialdeetan, atsoek, emagin tradizionalak edo bizarginek edo, batzuetan, medikuek edo emaginek egiten dituzte mozketak, inolako higienarik gabe.

Mendebaldeko herrialdeetan, ebaketa horiek egiten dituzten herrialdeetako jatorrizko erkidegoetan, hain zuzen ere, neska askok mozketak sexualak jasaten dute oraindik. Familiak erbesteratutako mozketagileengana⁶⁷ jotzen dute edo oportretan alaba bidaltzen dute sorterriara, “ebakuntza” egin diezaioten.

Oro har, mozketak 4-14 urte artean egiten diren arren, jaio eta hilabete batzuetara edo ezkondu baino lehen ere egin daitezke, kulturen arabera.

Zenbatespenen arabera, Afrikako 130 milioi emakumek mozketak sexualak jasaten dituzte. Era berean, Arabiako penintsulan eta Indonesian ere gertatzen dira halakoak.

Urtero-urtero, bi milioi neska mozketak jasaten dituzte, legeria nazional askotan eta nazioarteko hitzarmen ugaritan debekatuta badaude ere.⁶⁸

Belgikan, Adingabeen Babes Penalari buruzko 2000ko azaroaren 28ko Legeak 29. artikuluan zigortzen du *emakumearen organo genitalen edonolako mozketak egiten, errazten edo sustatzen duen edozein pertsona, emakumea ados dagoenean nahiz ez dagoenean*,⁶⁹[...]. Zigorra are larriagoa izango da, neskatoa adingabea bada edo egintza hori familiako kide batek edo neskatoren gaineko agintea duen pertsona batek egin badu.

Espainiar estatuan, herritarren segurtasuna, etxeko biolentzia eta atzerritarren gizarteratzeari buruzko neurri jakinen gaineko 11/2003 Lege Organikoak hauxe dio: *“pertsona batek beste bati edozein motatako mozketak genitalak egingo balio, 6 eta 12 urte bitarteko kartzela zigorra jasoko luke. Biktima adinez txikia edo ezgaia balitz, 4 eta 10 urte bitartean guraso-aginte, tutoretza, kuraduria, zaintza edo harrerarako aukera modu berezian utzi ahal izango litzateke gaitasunik gabe, epaileak uste badu adin txikikoaren edo ezgaiaren intereserako dela”*.

⁶⁵ No progress on women's rights – Pakistan, Nazioarteko Amnistia, R.-Pierre Paringaux, in *Le Monde diplomatique*, 2001eko maiatza.

⁶⁶ Osasunerako Munduko Erakundea (OME).

⁶⁷ Mozketak sexualak egiten dituen emakumea da.

⁶⁸ Agir face aux mutilations sexuelles, Unissons-nous pour l'intégrité de nos filles, Groupement pour l'abolition des mutilations sexuelles (GAMS), 2002.

⁶⁹ Adingabeen Babes Penalari buruzko 2000ko azaroaren 28ko Legea.



■ 2. Elkarteen lana

Mundu osoan, elkarte askok gogotik egiten dute lan, emakumeen aurkako indarkeriak salatzeko, biktimak hartzeko, euren eskubideen onespeneraren alde borrokatzeko eta euren duintasuna berreratzen laguntzeko.

- ◆ Latinoamerikan, emakumeentzako komisariak sortu dituzte. Bertan, emakumeek tratatu txarrak jasan dituzten emakumeak hartzen dituzte.
- ◆ Afrikan, zenbait elkarte bete-betean ari dira lanean, emakumeen mozketak sexualak desagerrarazteko. Hain zuzen ere, emakume mozketagileen lanbidea birmoldatzeko proiektuak sortu dira, beste diru-iturri batzuk izan ditzaten. Belgikan, GAMS⁷⁰ elkarteak borrokatzen ari da emakumeen mozketak sexualak indarrak gabe uzteko, eta, batez ere, osasuneko profesionalak eta etorkinen erkidego afrikarrak sentsibilizatzen ditu, tortura hori behin betiko utzi dezaten.
- ◆ Nazioarteko Amnistia giza eskubideak defendatzen dituen elkarteak da, eta torturen, heriotza-zigorren, “desagerpenen”, epai inpartzialen eta iritzia adierazteagatik espetxeratzeko prozesuen aurka borrokatzen da. Elkarteak bertan, emakumeen atala sortu dute, emakumeen oinarritzko eskubideen aldeko borroka sendotzeko⁷¹.
- ◆ Duela zenbait urtetatik hona, gizonak (eta emakumeak) emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko borrokaren inguruan sentsibilizatzeko kanpainak garatu dira.

Lazo zuriaren kanpaina Europako kanpaina da, eta gizonak sentsibilizatzea eta mobilizatzea eta gazteentzako hezkuntza-tresnak sustatzea du helburu nagusi, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko behar besteko neurriak ezartzeko asmoz.

Lazo zuriaren gizarte-eragileek bakearen kultura eta bortitza ez den gizarteak dituzte xede.

Urtero, azaroaren 25ean, lazo zuria eramaten dute soinean, emakumeen aurkako indarkeria-egintzarik inoiz egingo ez dutela eta beste gizon batzuek emakumeen aurka egindako indarkeria-egintzak inoiz estali eta isilduko ez dituztela adierazteko⁷².

⁷⁰ Groupement pour l'abolition des mutilations sexuelles.

⁷¹ <http://www.droitsdesfemmes.net>

⁷² <http://www.whiteribbon.ca>

■ Ondorioa

Jarrera hauek harreman bortitzen adierazgarri dira. Zer uste duzu?

- ◆ Bikotekideari lagun batzuekin ez irteteko eskatzen diot, nire gustukoak ez direlako.
- ◆ Bikotekidea lagunekin berbetan ikusten dudanean, jeloskor jartzen naiz, baina ez da larria, jeloskortasuna maitasunaren adierazgarri da-eta.
- ◆ Bikotekideak uzten banau, neure buruaz beste egingo dudala esaten diot.
- ◆ Bikotekidearekin zinera joan naiz eta nik neuk aukeratu dut filma, berak zer ikusi nahi zuen galdetu gabe.
- ◆ Sarritan, bikotekidearekin haserretzen naiz, nire sumindura adierazteko.
- ◆ Bikotekide ohiarekin bizi izan dudana eta intimitatean esan zidana azaltzen diet ikasgelako lagunei.
- ◆ Edonolako indarkeria onartu daiteke, ondoren barkamena eskatuz gero.
- ◆ Bikotekidearekin batera joaten naiz bere jarduerak egitera. Horrela, badakit zer egiten duen.
- ◆ Lagunekin irteten garenean, emaztegaiari makillatzeko eskatzen diot. Izan ere, makillatzen ez denean, ez da oso polita, egia esan.
- ◆ Emaztegaiari ez diot makillatzen uzten, makillajea oso arrunta delako.
- ◆ Bikotekidea iraindu dut. Ez dago ondo, baina are larriagoa da jotzea.
- ◆ Bikotekideari lagun batzuekin ez irteteko eskatzen diot, beragan eragin txarra dutela dakidalako.
- ◆ Bikotekidearen itxura fisikoa kontrolatzen dut.
- ◆ Nork bere erara ulertzen du maitasuna, baina nire ustez maitasuna erakargarriagoa da bortitz samarra izanez gero.
- ◆ Bikotekidea kontrolpean daukat, aurreko harremanean esperientzia txarra izan dudalako.
- ◆ Bikotekidea jo dut, bere hitzek haserrearazi egin nautelako.

Maitasun-harremanetako indarkeriari buruzko informazioa, laguntza edo helbideak lortzeko, Walonia-Bruselako Erkidegoko liburuxka jaitsi besterik ez duzu web orri honetan: <http://www.egalite.cfwb.be>



Publizitatea, jasangaitza edo miretsia?

■ 1. Publizitatea, jasangaitza edo miretsia?

Publizitatean ez dira beti agertzen emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-balioak. Sarritan, pertsonen estereotipoak azaltzen dira, eta emakumeek zein gizonak gizartean dituzten zereginen eta lekuaren gezurrezko irudia erakusten du.

Askotan, emakumea guraria da publizitatean, “lorontzia”, arduragabea edo etxeke lanen arduraduna. Bestetik, gizonak erantzukizunak ditu, eta menderatzailea, handinahia eta, batzuetan, bortitza ere bada publizitatean.

Iparraldean zein hegoaldean, irudi horiek iraganekoak direla esan liteke eta publizitatea pertsonekin batera bilakatu dela. Hala ere, hirietako hormak apaintzen dituzten publizitate-karteletan eta telebistako iragarkietan, iraganeko irudiok zabaltzen dituzte oraindik.

Txiki-txikitatik, neskek itxura fisikoagatik kezkatuta dauden izakiak direla ikusten dute publizitatean. Mutilei, ordea, kirola egiteko eta teknologiarantz zein gerrako jokoetarantz jotzeko eskatzen diete publizitatean.

Nola lortuko dugu emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, publizitatean neskak etxeke andreak edo objektu sexualak direla eta mutilak menderatzaileak edo bortitzak direla azaltzen badigute?

“Telebistako publizitatea aldatu dezagun, sormen handiagoa, matxismo gutxiago”

“Fem-TV saria” kanpaina (Flora Tristan Peruko Emakumeentzako Zentroa; Manuela mugimendua, Emakumeen Eskubideak Babesteko Azterlana; Radio Feminista Taldea, Kalandriako Komunikatzaileen Elkarte).

Bazenekien...?

Zer da publizitatea?

Merkataritzako helburuak lortzeko asmoz, jendearengan ekintza psikologikoa egiteko artea edo egitatea. (Le Robert, 2002.)

Sexismoa?

Emakumezko sexuarenganako bereizkeria-jarrera. (Le Petit Robert, 2002.)

Publizitate sexista?

Merkataritzako helburuak lortzeko asmoz, emakumeenganako bereizkeria sustatzen duen ekintza psikologikoa. Esate baterako, produktuen abantailak goraipatzeko, klise sexistak, biluziak eta produktuekin inolako zerikusirik ez duten sexualitate-aipamenak erabiliko ditu.

Publizitateak kontsumitzaile moduan dugun jokabidean eragina izatea du helburu nagusi, aurkeztutako produktuak eros ditzagun. Dena den, produktuak aldeztutako ezarritako ideia sexisten bidez nabarmentzean, publizitateak ez du ematen gizonen eta emakumeen gizaritzaaren zereginaren benetako irudiaren berri.


Iparraldeko eta hegoaldeko herrialdeetako kontsumitzaile askok, kontsumitzaileen elkarte batzuek eta hiritarrek egoera horri erantzuteko erabakia hartu dute, eta, horretarako, publizitateko zenbait iragarkiren erasoak salatu dute.



- Zer duzue publizitatearen aurka, bada!?



- Neska lar ondo dago, ezta?



- Zer adierazi nahi duzu LAR ondo dagoela esatean?

Bazenekien...?

◆ Belgikan

Zer da Publizitateko Etikaren Epaimahaia?

PEE (Publizitateko Etikaren Epaimahaia) Belgikako publizitate-sektorearen autodiziplinako organoa da. Publizitateko Kontseiluak (Conseil de la Publicité-k) sortu zuen 1974. urtean. Elkarrekin iragarleak eta komunikazioko zein prentsako agentzien ordezkari diren elkarrekin biltzen ditu, eta publizitatea sustatzea du helburu nagusi.

Ikus-entzuleen konfiantza lortzeko, publizitatea osasungarria bezain arduratsua izan behar da. Epaimahaiak komunikabideetan zabalduko publizitateko mezuak eta publizitateko etikari buruzko arauak bat datozen aztertu behar du, autodiziplinari buruzko legeetan eta kodeetan oinarrituta. PEEren autodiziplina-ekintza iragarleak, agentzien eta komunikabideen arteko borondatezko lankidetzan dago oinarrituta.

Izan ere, zeregin bikoitza du. Batetik, ikus-entzuleak eta, batez ere, kontsumitzaileak kexak aztertzen ditu (enpresak eta merkataritzako helburuak dituzten erakundeak alde batera utzita). Bestetik, publizitatea zabaldu aurretik, iragarleek, agentziek eta komunikabideek askatasunez aurkeztu dezaketen alde aurretiko azterketarako eskabideei erantzuten diete.

◆ Espainiar estatuan

Publizitatearen Lege Orokorra

Espainiar estatuan, 1994ko urtarrilaren 1ean publizitatea salatzeko aukera sortu zen, beti ere, Publizitatearen Lege Orokorren azaroaren 11ko 34/88 Legeko 3. artikulua arabera, “pertsonen duintasunaren kontra egiten badu edo Konstituzioan jasotako balio eta eskubideak urratzen baditu, batez ere ume, gazte eta emakumeen arloetan”. Azken urteotan, publizitateari buruzko zenbait behatoki sortu dira. Horietako bat bisitatze gonbita egiten dizugu, Publizitate Ez Sexistaren Andaluziako Behatokia:

<http://www.iam-publicidad.org/>

Publizitate sexistagatiko kezka dela eta, kontsumitzaileak kexa kopurua gorantz doa.

Publizitate sexistaren aurkako kexetan, emakume eta gizon horiek emakumeen eta gizonen ohiko zereginen muturreko estereotipoen erabilera salatzen dute. Iruditzen, emakumeak eta gizonak kontsumorako eta grina sexualerako objektuak baino ez dira. Dena dela, publizitateak berez gizakien nortasuna eratzeko ez badu ere, pertsonen irudimenean eragina dauka, milaka aletan kopiatzen delako (zenbatespen arabera, gaur egun, herrialde garatuak, pertsonak 2.500a publizitate-nezaren eraginpean daude eguneko).⁷³



⁷³ Ignacio Ramonet, “La fabrique des désirs”, in *Le Monde diplomatique*, 2001eko maiatza.

■ 2. Elkarteen erantzuna

La Meute (Frantzia)

“La Meute” elkarteak, Florence Montreynauk 2000ko irailaren 28an jaurtitako “Publizitate sexistarik ez” adierazpena⁷⁴ sinatu zuten pertsonak biltzen dira. Publizitate sexistaren aurkako nazioarteko sare feminista eta mistoa da.

La Meute elkarteak zenbait eratako ekintzak garatu eta sustatzen ditu; esate baterako, kexak bidaltzen dizkio iragarleari edo publizitateko enpresari. Era berean, topaketak ere antolatzen ditu.

2003ko urtarrilean prestatutako plater baten publizitate sexistaren aurka garatutako kanpainan, pertsona askok eta askok gutunak bidali zituzten La Meute elkarteak egindako deiaren ostean, oso haserre zeudela adierazteko eta aurrerantzean marka horretako produkturik erosiko ez zutela esateko. Horrelako ekintzak erabilgarriak izan daitezke, enpresak honako hau erantzun zuelako kritikak jaso ondoren:

“Eskerrik asko gure publizitateari buruz duzuen iritzia zein den adierazteagatik. Iragarkiak berak umorea zuen helburu, eta ez sexismoa eta bereizkeria. Iragarkiko umoreak sentsibiltateak mintu dituenek, kartelak kentzeko erabakia hartu dugu. Esan behar diguzuen guztia entzuteko prest gaude, garrantzi handia ematen diegulako gure kontsumitzaileek adierazitako iritziei.

Adeitasunez,

Kontsumitzaileen Atentziorako Saila.”

Informazio gehiago jaso nahi izanez gero, elkartearen web orrian sartu: <http://lameute.org.free.fr/>


Adierazpenaren sinatzaileek honako hau adierazten dugu:

1. **Jende guztiari** eskatzen diogu publizitate sexistaren aurka erantzuteko eta publizitate horrek iragarritako produkturik ez erosteko. Indarkeria horri aurre egiteko, iragarkiek saldu nahi diguten produktua gaitzetsiko dugu.
2. **Publizistei eta iragarleei** eskatzen diegu gizakiak laido-garritasunez, isekaz eta ankerkeriaz ez irudikatzeko.
3. **Komunikabideei** eskatzen diegu publizitate sexistarik ez zabaltzeko.
4. **Kargu hautetsiei** eskatzen diegu behar besteko neurriak hartzeko, publizitate sexista behin betiko amaitu dadin. Horretarako, publizistei, iragarleei eta komunikabideei agindu behar diete adierazpen hau sinatzen duten feministekin batera egindako kode deontologikoa garatzeko. Era berean, kargu hautetsiei eskatzen diegu publizitateko jarduerak arautzeko sexismoaren aurkako legea bozkatzeko.



Egiaztatu denez, komunikabideetan gustura ez dagoen pertsona baten gutun bakar bat jasotzen denean, isilik dauden MILA pertsonak jarrera bera izan dute. Beraz, enpresek badakite zeinen garrantzitsuak diren gutun horiek, beti erantzuten ez badute ere.

⁷⁴ Idatzizko adierazpen publikoa eta irmoa da, eta, horren arabera, gobernuak, pertsonak edo talde politikoei euren programa azaltzen dute edo euren jarrera justifikatzen dute. (Le Robert, 1996). Funtzionamendurako modu berriak eskatzeko erantzun-tresna moduan erabil daiteke.



Zorra (Belgika)

Zorra publizitatean eta komunikabideetan sexuari buruz agertzen diren estereotipoak ikustea, ikertzea eta euren erantzutea da flandeseraz.

Elkarte honek emakumeak eta gizonak, artasuna eta emetasuna, publizitatean eta komunikabideetan irudikatzeko darabilten moduari buruzko erantzun publikoak (erreklamazioak eta zorionak) biltzea du helburu. Ondoren, elkar-teak iragarleei ematen die jendeak baztertzailatzat hartutako iragarkiak salatzen dituzten erantzunen berri.

Izan ere, elkar-teak publizitatean bertan emakumeen eta gizonen gainean agertzen den irudikapen txarra desager-raraztea du xede nagusi.

Informazio gehiago jaso nahi izanez gero, elkar-tearen web orrian sartu: <http://www.zorra.be>

FACUA (Espainia)

FACUA Ekintzarako Prest dauden Kontsumitzaileen Federazioa da. Bere baitan zenbait elkarte biltzen ditu, eta elkarte horien helburua erabiltzaileen esku-bideak defendatzea da, merkatuaren gehiegikerien aurrean.

Beste zenbait ekintzaz gain, publizitate engainaga-rria, sexista, arriskutsua edo ezkutuko kasuak salatz-zen dituzten pertsonen edo kolektiboen protestak jasotzen ditu, eta izapideak egiten ditu iragarkia jarri duen enpresaren aurrean.

Informazio gehiagorako, bisitatu FACUAren web orria: <http://www.facua.org>

Zergatik ez da saritzen sexista ez den publizitatea?

Zergatik nabarmenduko ditugu alde txarrak bakarrik?

Iragarki "onak" balioesteko, elkarte batzuek estereotipo sexistak ondoen hausten dituen publizitatea sarituko dute urtero. Ideia hori Quebecen sortu bada ere, Belgikan Zorra elkar-teak berreskuratu du; Frantzia, La Meute elkar-teak; eta Perun, Emakumeen Azterlanetarako Zentroa.

"Helburua ez da objektu bakar bat erakusten duen publizitate neutroa, emakumeak, gizonak edo bi sexuen arteko harremanak irudikatzeko pentsaerak bilakatu ditzakeen irudia baizik", La Meute.

■ Nola erantzun?

Telebistan eta kalean ikusten duzun publizitatea edo irratian entzuten duzun publizitatea harrigarria iruditzen bazaizu, ez izan zalantzarik eta erantzun!

Hona hemen zer egin dezakezun publizitate sexista, arrazista edo baztertzaila ikusten duzunean:

- ◆ Bakarrik edo taldean gutuna bidali marka horretako enpresara, bere publizitate-kanpaina berria harrigarria iruditu zaizula adierazteko.
- ◆ FACUA elkarteak edo publizitateari buruz dauden behatokiek iragarki horiek euren web orrietan salatu dituzten begiratu eta, salatu ez badituzte, publizitatea azaltzeko mezua eta/edo argazkia bidali posta elektronikoz.
- ◆ Publizitate-kanpaina sexisten aurkako elkarteek antolatutako manifestaldietan parte hartu.
- ◆ Kexa bidali erakunde batzuek dituzten Publizitate Behatokitara, hala nola, Emakumearen Institutura (<http://www.mtas.es/mujer/observpub.htm>) edo Andaluziako Juntara (<http://www.iam-publicidad.org/>). Izan ere, bertan aurkituko dituzu telefonoak eta/edo formularioak, dagozkion salaketak egiteko.

Hurrengo orrialdeko fitxa lagungarria izango da publizitatea aztertzeko. Egin honelako analisiak aukeratu dituzun iragarkiekin.



■ Publizitatea aztertzeko fitxa⁷⁵

Produktu-mota:

Marka:

Norentzat: ☐ Neskak ☐ Mutilak ☐ Bereizi gabe

Lagina: ☐ **Gizabanakoa:** ☐ Neska ☐ Mutila
☐ **Taldea:** ☐ Neskak ☐ Mutilak ☐ Mistoa
☐ **Familia:** ☐ Neskak eta mutilak ☐ Neska bat ☐ Mutil bat

Irudikapena:

Emakumearena/neskarena	Gizonarena/mutilarena	Gizonen eta emakumeen arteko harremanarena (kartelean gizona eta emakumea agertzen badira)
☐ Emakume objektua	☐ Gizon objektua	☐ Berdintzailea
☐ Etxeko andrea	☐ Aita bihozbera	☐ Menderatzailea
☐ Emakume “lorontzia”	☐ Ar lizuna	☐ Sexuala
☐ Emakumea-neska	☐ Gizon aktiboa	☐ Utilitarista
☐ Maniki-panpina	☐ Gizon bortitza	☐ Askea
☐ Guraria	☐ Gizon babeslea	☐ Maitasuna
☐ Zatitutako gorputza	☐ “Beherago” dagoen gizona	☐ Adiskidetasuna
☐ Animalia-itxurakoa	☐ Etxeko gizona	☐ Jeloskortasuna
☐ Emakume ☐ biktima/bortxatua	☐ Gizon-puska	☐ Jabetza
☐ Emakume tentatzailea	☐ Animalia-itxurakoa	
☐ Emakume deabrua	☐ Gizon esklaboa	
☐ Prostituta	☐ Gizona/luxua	
☐ “Gorago” dagoen emakumea		
☐ Emakume esklaboa		
☐ Emakumea/luxua		

Zure ustez, publizitate honek:

- ☐ Lotura zuzena du iragartzen duen produktuarekin.
- ☐ Biluztasuna eta sexualitatea darabiltza, produktua-ekin inolako zerikusirik ez badute ere.
- ☐ Gizonen eta emakumeen gizaratean duten benetako zeregina erakusten du.
- ☐ Gizonei eta emakumei buruzko estereotipoak eta gure gizaratean daukaten harremana sendotzen ditu.
- ☐ Harri eta zur utzi dezake jendea, emakumeak/gizonak edo euren arteko harremana nola erakusten dituen kontuan hartuz gero.
- ☐ Gizakiak eta euren arteko harremanak laidogarritasunez, isekaz eta ankerkeriaz irudikatzen ditu.
- ☐ Indarkeria legeztatzen/sustatzen du gizonen eta emakumeen arteko harremanetan.

⁷⁵ “La publicité, Outil d’animation”, Le Monde selon les femmes, 2003ko otsaila.



Bizitza afektiboa eta bizitza sexuala

Aurreko orrialdeetako adibide ugariak kontuan hartuta, argi eta garbi dago oraindik bide luzea dagoela aurretik, iparraldeko eta hegoaldeko herrialdeetan nesken eta mutilen arteko berdintasuna lortzeko, pentsaerak, legeak eta nazioarteko hitzarmenak astiro-astiro bilakatzen dira eta.

Azken kapitulu honek harreman afektiboetan, maitasunezkoetan eta sexualetan ere berdintasunezko harremanak balioetsi behar direla onartzea du helburu.

■ 1. Nerabea

Nerabezaroan, nesken eta mutikoen gorputza eraldatu egiten da pixkanaka-pixkanaka, aldaketa hormonalen ondorioz. Mutilak azkar-azkar hazten dira, ahotsa aldatzen zaie, ile-sistema garatzen zaie eta bizarra hazten zaie. Neskei, oster, hilekoa iristen zaie eta bularra zein ile-sistema garatzen zaizkie.

Garai horretan, aldaketa psikologikoak eta sozialak ere gertatzen dira. Nerabeak atzean uzten du umea, eta gurasoekiko lotura hausten du pixkanaka.

Autonomoagoa da, munduari buruzko iritzia du eta lehen maitasun-harremanak bizi ditu.

Nerabezaroa, hain zuzen ere, umezaroaren eta helduaroaren arteko iragaitza da, eta, sasoi horretan, nortasuna eratzen da.

Françoise Dolto psikoanalistaren ustez, nerabezaroa “bigarren jaiotza” da. Abakandoaren mudaren antzekoa dela dio, *“sasoi horretan oskolik gabe dagoelako eta beste bat berregin behar duelako arrisku guztiei aurre egiteko. Izan ere, nerabazarora iristean, neskek eta mutilek aldaketa handiak jasaten dituzte ikuspegi fisikorik, psikologikotik eta sozialetik. Gurariz, idealismoz eta energiaz betetako iragaitza da, baina neskek eta mutilek desberdin bizi duten ezegonkortasun-unea ere bada, eta, sasoi horretan, euren nortasuna zehaztu behar dute berriro”*.⁷⁶

⁷⁶ Françoise Dolto, “Paroles pour adolescents, le complexe du homard”, Livre de Poche, 1989.

Bazenekien...?


Benetan dago nerabezaroa edo adoleszentzia?

Hitz hori latineko “adolescere” hitzetik dator, eta “hazi” esan nahi du.

Kultura guztiek, inolako salbuespenik gabe, argi eta garbi uzten dute umezaroaren eta helduaroaren arteko iragaitza gertatzen dela.

Pubertaroa?

Hitz hori latineko “pubere” hitzetik dator, eta “ilez estali” esan nahi du.



■ 2. Nesken eta mutilen eraldaketa desberdinak

Nerabezaroan, edozein iragaitzatan bezala, oso garrantzitsua da nork bere buruarenganako konfiantza izatea eta nor bere gorputzean gustura egotea, ikasketei, eskolaz kanpoko jardueri edo kirol-jardueri, lagun arteko topaketei edo maitasun-topaketei eta aisialdiari buruzko erabakiak hartzeko orduan.

Euren joerak desberdinak badira ere, neskak eta mutilak gai askori buruzko erabakiak hartzeko gai dira. Batzuetan, erabaki horiek egokiak dira, baina beste batzuetan ez. Askotan, neskentzat eta mutilentzat oso zaila da aukeratzea, eta, horren ondorioz, gustuko ez dituzten eskola edo kirol jarduerak egin behar dituzte eta ezin dira bete-betean garatu.

Neskak umeak baino zuhurragoak dira, mutilak sentikorragoak direlako gainerakoen presioen eta iseken aurrean. Mutilak autonomia handiagoa lortzen dute, hobeto aurre egiten dietelako helduen eskakizunek eragindako frustrazioei eta antsietateari. Horrela, bada, behar besteko konfiantza dute, arazoak euren kabuz konpondu ahal izateko.

Euren nortasuna sendotzeko, neskek eta mutilek era irekian eta konstruktiboan onartu behar dituzte euren ahuleziak eta indarrak, eta ez dituzte euren nortasuneko zenbait alderdi ezkutatu behar. Nerabezaroan, arazoak eta zailtasunak kudeatzen ikasten dute. Ondo ikasteko, irudimena erabili behar dute, ezetz esaten jakin behar dute eta eurenaganako konfiantza handia izan behar dute, euren akatsak onartzeko eta norabidez aldatzeko⁷⁷.

Neskek eta mutilek desberdin adierazten dute euren ondoeza. Dena dela, halakoetan, euren jokabidea nahasi samarra izango da. Mundu guztiak ez du gauza bera sentitzen adin berean, eta nork bere erara onartzen ditu gorputzaren aldaketak... Hala ere, guztiek zailtasun bera dute: diren moduan onartu behar dira. Norbaitek garau gehiegi, soberako kilo batzuk, bular txikiegia edo handiegia... dituela uste izateagatik konplexuak* agertu daitezke (nor bere buruarekin txarto sentitzea)⁷⁸.

Mutilek eta neskek era desberdinean kanporatzen dute ondoez hori. Mutilek jokabide-arazoen bidez adierazi ditzakete (esate baterako, indarkeriaren bidez). Neskek, mutilen aldean, buru-estimua gutxiago dute, eta, neurri handiagoan, euren buruaz beste egitean pentsatzen dute. Neska batzuek euren gorputza gaitzesten dute haserre hori adierazteko: janaria gaitzesten dute (anorexia) edo larregi jaten dute (bulimia). Muturreko argaltasuna goستن duen publizitatearen eragina oso-oso handia da gaixotasun horietan.

- Batzuetan sentitzen dut...



sudurra naizela!



- Batzuetan sentitzen dut...



sabela naizela!



- Batzuetan sentitzen dut...



ni neu naizela!



* **Konplexua:** nor bere gorputzean txarto egotea, gorputzaren atal baten ondorioz obsesionatuta egotea, nork bere burua ez onartzea.

⁷⁷ *La igualdad entre mujeres y hombres en la escuela y por la escuela*, Carl Rogersen arabera, Europako Mintegiaren Txostena Irakasleentzat, 2001eko maiatzaren 14tik 18ra.

⁷⁸ "Féminin, masculin, des jeunes en parlent..." kontuan hartuta, SIPS, Ulg, 2000.

■ Nesken eta mutilen arteko harreman desberdinak

Nerabezaroan, aldaketa asko gertatzen dira harremanetan eta maitasunean. Adiskideak eta maitasun-harremanak oso garrantzitsuak dira, eta, gurasoekiko harremanak, oster, gero eta zailagoak dira.

■ Lagun minak

Adiskidetasunak garrantzi handi-handia du nesken zein mutilen bizimoduan. Hala ere, adiskidetasun-harremanek zeregin desberdinak dituzte sexuaren arabera. Neskek asko balioesten dituzte intimitatea, hurbiltasuna eta partekamendua, eta konpromiso emozional handia dute. Mutilek, berriz, garrantzi handiagoa ematen diote adiskidetasunaren eginkizun instrumentalari: eurekin jarduera ludikoak, kirolak eta irtenaldiak partekatzen dituztenak dira lagunak.



■ 3. Maitasun-harremanetik sexu-harremanera

Lehenengo musuak eta bikotekidearekin egindako lehen irtenaldiak ezin garrantzitsuagoak dira nerabeentzat. Horixe bera da garrantzitsuena, hodei batean daudela sentitzen dute eta bizitza arrosa-kolorekoa da eurentzat. Maitasun-harremana bizitzeak ez du esan nahi pertsona bera eta bakarra eratzten dela eta pertsona biek gauza berberak egiteko gogoia eta gurari berberak izan behar dituztela. Oso kontuan izan behar da bikotea bi gizabanako autonomok eta desberdinek osatzen dutela.

Giza harreman guztietan, ezinbestekoa da beste pertsona eta norbera errespetatzea. Bestea errespetatzea bestearen erabakiak, gurariak, sentipenak eta izaera errespetatzea da. Norbera errespetatzea besteak norberaren erabakiak, gurariak, sentipenak eta izaera ez errespetatzea gaitzestea da. Bikotekide batek ezer egin nahi ez badu, besteak ez du inolaz ere behartzerik. EZETZ esateko aukera izatea eta EZETZA onartzea elkar errespetatzeko baldintzak dira.

Bikote batean, grina sexuala sortu daiteke. Dena dela, edozein adinetan eta harremana hasi berria den ala ez kontuan hartu gabe, amodioa egitea biren artean hartu beharreko erabakia da. Nork bere askatasuna dauka sexu-harremanak izateko, eta bikotekide batek ezin du bestea amodioa egitera behartu. Neskek eta mutilek elkarrekiko errespetuan oinarritutako berdintasunezko maitasun-harremana (eta, beharbada, sexu-harremana) bizitzeko eskubidea daukate.

Beraz, erabateko bizitza afektiboa eta sexualitatea bizitzeko, ezinbestekoa da berdintasunezko harremanak bizitzea. Sexualitatea ez datza organo sexualetan bakarrik, sentipenekin zerikusia duten bizipenak ere hartzen dituelako kontuan.

■ Eta homosexualitatea?

Luzaroan, homosexualitatea familian emandako hezkuntzaren emaitza zela uste izan zuten.

Gaur egun, berriz, badakigu teoria hori gezurra dela eta ez dagoela homosexualitatearen “eragilerik”, heterosexualitatearen “eragilerik” ez dagoen bezala.

Gaur egun, sexualitatean espezializatutako medikuntzak eta ikerketak ez dute homosexualitatea arazo sexualtzat hartzen. Guztiz kontrakoa gertatzen da, aldagai sexual arrunta delako eurentzat.

Informazio hori izan arren eta pentsaerak bilakatu arren, oraindik askok eta askok “desbideraketa-tzat”, arazo sexualtzat hartzen dute homosexualitatea.

Sarritan nerabezaroan orientazio sexual hori dutela dakiten neska eta mutil gazteentzat oso zaila da hori onartzea, senitartekoekin horri buruz hitz egitea eta inguruko begirada gaitzesleei aurre egitea.

Elkarte askok⁷⁹ homosexualitatearen onespeneraren eta homosexualen eta lesbianen eskubideen alde lan egiten dute, eta gai horri buruzko aholkularitza eskaintzen diete gazteei⁸⁰.

■ Neskei eta mutilei buruzko iritziak...

Sexu batekoa edo bestekoa izatea erabakigarria da pertsonentzat. Pentsaerak astiro-astiro bilakatzen direnez, gizartearen ustez oraindik neskek eta mutilek ez dute jokabide bera izan behar maitasun eta sexu harremanetan. Emakumeen jokabide batzuk txalotu edo gaitzetsi egiten dituzte, eta mutilek beste jokabide batzuk izan behar dituzte.

Neskek eta mutilek ez dituzte berdin bizitzen euren maitasun-harremanak. Horrez gain, nerabeen inguruan dauden gizarteak, kulturak eta erlijioak eragin handia dute euren maitasun-jokabidean.

◆ ESATE BATERAKO

Maite-kontu asko izan dituzten neskak “neska errazak” direla esaten da sarritan. Gauza bera egiten duten mutilak, ordea, “donjuanak” direla esan ohi da, eta ospe ona dute.

Kultura batzuetan, neskek ezin dute inolako maitasun eta sexu harremanik izan ezkondu baino lehen. Mutilek, aldiz, nahi beste maite-kontu izan ditzakete, eta inguruneak ez ditu txarrerako epaitzen.

Horrela, bada, mutilei balioesten zaiena ez zaie neskei balioesten, eta, batzuetan, neskei halakoak egitea debekatzen diete. Nesken jarrera gutxietsita sexuak bereizteari “sexismoa” deitzen zaio.

Kontuz xantaia afektiboarekin!

“Preserbatiboa daramadanean ez dut ezer sentitzen. Beraz, ez dugu erabiliko”, “Benetan maite banauzu eta niganako konfiantzarik baduzu, ez dut preserbatiboa erabili nahi” eta antzeko aitzakiak sexualitatearen arloko jokabide ardura-gabearen adierazgarri dira, eta xantaia afektibo argiak dira, gainera.

Eskaera horien onarpena ez da inolaz ere beste pertsonarenganako maitasunaren adierazgarri. Guztiz kontrakoa gertatzen da, preserbatiboa erabiltzea maitasun-keinua delako eta bikotekidea errespetatzen dugula adierazten duelako.

⁷⁹ Adibidez: <http://www.hegoak.com>

⁸⁰ Web orri honen egokitzapena: <http://www.masexualite.ca/fre/teens/SGO/comingout.cfm>

■ STGen eta nahi gabeko haurdunaldien aurka irtenbide bakarra dago! kontrazepzioa

Sexualitatea gizon eta emakume guztien bizitzako osagaia da, eta arriskutsua izan daitekeenez, funtsezkoa da kontzientea izatea. Sexu bidez transmititutako gaixotasun asko (STG) daude, eta, HIESa ezagunena den arren, ondorio larriak eragiten dituzten beste batzuk ere badaude.

Horrez gain, nahi gabeko haurdunaldi asko eta asko gertatzen dira, neskatoetan ere bai.

Maitasun-harremanetan preserbatiboa erabiltzea ez da mutilaren ekimena bakarrik izan behar. Neskak ziurtatu egin behar du bikotekideak gogoratu egiten duela eta ezin du pentsatu ezer esaten ez badu inolako arriskurik ez dagoelako egiten duela. Neskak mutil-lagunari esateko ekimena izan dezake, eta sexu-harremanetan zehar ere proposatu dezake.

Pilula antisorgailua ez da emakumeen kontua bakarrik. Agerikoa denez, neskak egunero hartu behar duela gogoratu behar du, baina mutilak ere neskaren pilula nola dabilen galdetu dezake, neskak hartu duen ala ez itaundu dezake eta, zergatik ez, erosteko dirua eman diezaioke! Azken batean, bikotekide biak babestu behar dira haurdunalditik. Beraz, zergatik ordaindu beharko luke neskak bakarrik?



Pilula antisorgailua nahi gabeko haurdunaldiak saihesteko metodoa da.

Hala ere, preserbatiboa da STGetatik babesteko modu baliagarri bakarra.

Bazenekien...?

2000. urtean, FNUAPen (Nazio Batuen Biztanle Funtsaren) zenbatespenen arabera, 15-19 urte arteko nesken haurdunaldien borondatezko etendurak munduko haurdunaldien borondatezko etendura guztien %25ekoak ziren. Sarritan, abortu horiek beranduegi edo baldintza arriskutsuetan egiten direnez, egoera horretan dauden nerabe asko hiltzen dira.

Espainiar estatuan, 20 urtetik beherakoen borondatezko haurdunaldi etenak %20 inguruan daude.⁸¹

Belgikan, erregistratutako haurdunaldien borondatezko etenduren %11 adingabeenak dira.⁸²

⁸¹ "Guía Educativa para un sexo más seguro" Kanarietako Osasun Planaren barne.

⁸² Michelle Lamensch, in *Le Soir*, 2000ko irailaren 5a.

■ Sexualitatea ulertzeko modu desberdinak eta sexualitateari zein STGei buruzko informazioa

Kulturan bertan tabua den ala ez kontuan hartu gabe, gazteek ahalik eta modu onenean jaso behar dute sexualitateari eta bere arriskuei buruzko informazioa.

Nolanahi ere, hegoaldean zein iparraldean, txarto edo gutxi informatuta dauden gazte askok ez dute sexu bidez transmititutako gaixotasunetatik babesteko preserbatiborik erabiltzen, ez eta nahi gabeko haurdunaldien aurkako antisorgailurik ere.

HIESaren jipoiaren ondorioz, herrialde askok eta askok neurriak hartu dituzte. Hala ere, beste batzuek ez dute hala-korik egiterik, finantza-baliabiderik ez dutelako.



ESPAINIAR ESTATUAN ETA BELGIKAN

Gazteei eta gaztetxoei lagundu ahal dieten elkarte eta erakunde asko daude. PMS zentroek (Belgikan) eta familia-plangintzarako zentroek (Espainiar estatuan) ere gazteei laguntzen diete sexualitatearekin, kontrazepzioarekin eta STGekin zerikusia duen guztia hobeto ulertzen!



ARGENTINAN

Argentinan prebentzio-kanpainak egiten dituzte. Noizean behin, gazteentzako ikastaroak antolatzen dituzte, eta, esate baterako, honako eslogan hauek erabiltzen dituzte: “Ez bizi ilargian, babestu!”. Hala ere, abortua debekatuta dago, eta amen heriotza-tasa %3,5ekoa da. Euretatik, herenak nerabeak dira (10-19 urte artekoak)⁸³.



SALVADORREN

Erdialdeko Amerikako herrialde honetan, sexu-harremanak izan dituzten 15-19 urte arteko gazteetatik –neskak eta mutilak, %8,1ek baino ez zuen metodo antisorgailuren bat erabili euren lehenengo harremanean. 15 urtetik beherako nerabeen haurdunaldien kopurua %34,7koa da.⁸⁴

⁸³ Dirección de estadísticas de la población, Buenos Aires, 2000, eta Population Référence Bureau, AEB, 1996.

⁸⁴ “Educame en la igualdad” txostena, “Embarazo y adolescentes” fitxa, Las Dignas, Salvador, 2002ko maiatz.



AFRIKAN ETA AMERIKA LATINOAN

Afrikako hiri batzuetan, abortuaren osteko arazo-
engatik ospitaleratutako emakumeen %40-%60
nerabeak dira. Amerika Latinoan, ordea, haurdu-
nen heriotzen %21 inolako segurtasunik gabe
egindako abortuen ondorioz gertatzen dira⁸⁵.



AMERIKAKO ESTATU BATUETAN

2002. urtean, barrutien %86k ez zuten
haurdunaldia nahita eteteko zerbitzurik.⁸⁶

Bazenekien...?

Zenbait neskek ez dute antisorgailuen kostua ordaintzerik. Belgikan, 20 urtera arteko edozein neskek hileko 3 euroko deskontua lortzen du, pilula antisorgailurako errezeta medikoa eta osasun-txartela (OTI txartela) aurkezten baditu. Esate baterako, medikuaren errezetak 3 hilabeterako balioa badauka, neskek 9 euroko deskontua lortzen du (3 x 3 euro); eta errezeta urtebeterakoa bada, deskontua 36 eurokoa da (12 x 3 euro).⁸⁷

4. Nazioarteko hitzarmenak

1994. urtean, Nazio Batuek Kairon Biztanleei eta Garapenari buruzko Bilera egin zutenean, gobernuek hitzartu egin zuten nerabeek behar besteko informazioa jaso behar zutela, bizitza sexual orekatua izateko, gaixotasunetatik eta nahi gabeko haurdunaldietatik babesteko eta berdintasunezko sexualitatea eratzeko.

Bost urte geroago, gobernuek hitzarmen hori berretsi zuten, eta hartu beharreko neurriak zein garatu beharreko ekintzak zehaztu zituzten. Gobernuek, garapen-bidean dauden herrialdeetakoek, batez ere, honako neurri hauek hartu beharko lituzkete nazioarteko erkidegoaren laguntzaz⁸⁸: hezkuntza formaleko eta ez-formaleko maila guztietan biztanleen eta osasunaren arazoei buruzko prestakuntza jarri behar dute abian, bai eta sexualitatearen zein ugalketaren arloko osasun-plana ere bai. Horrela, bada, [...] nerabeen ongizatea sustatuko dute, sexuen arteko berdintasuna eta oreka bultzatuko dituzte, sexuaren arloko jokabide arduratsua suspertuko dute eta nahi gabeko haurdunaldietatik edo haurdunaldi goiztiarretatik⁸⁹, sexu bidez transmititutako gaixotasunetatik, HIESetik, sexu-erasoetatik, indarkeria sexualetik eta intzestutik⁹⁰ babestuko dituzte [...].

⁸⁵ *Berdina*.

⁸⁶ Joni Seager, *Atlas de las mujeres en el mundo*, 36. or., Autrement argitaletxea, 2003ko lehen hiruhilekoa.

⁸⁷ 2004ko apirilaren 1etik aurrera.

⁸⁸ Nazio Batuen Batzar Nagusiko Ezohiko 21. Bilerako Osoko Ad Hoc Batzordearen Txostena, § 35, b puntua.

⁸⁹ Haurdunaldia nerabezaroan.

⁹⁰ Familia bereko senitartekoen arteko sexu-harremana.

■ Galdetegia⁹¹

Egoera hauek bat datoz neska moduan bizi izan duzun esperientziaren batekin?

- ☐ Deseroso sentitu zara mutilek zure gorputzari buruz esandakoagatik.
- ☐ Ez zara mutil bat bere lekuan jartzen ausartu, emakumeei edo euren gorputzari buruzko gordinkeriak esan dituenean.

- ☐
-
-
-
-
-
-

Egoera hauek bat datoz mutil moduan bizi izan duzun esperientziaren batekin?

- ☐ Zeure buruari galdera ugari egin dizkiozu, neskek interes handia erakusten ez dizutelako.
- ☐ Nesken aurrean lotsatu egiten den mutilari iseka egin diozu.

- ☐
-
-
-
-
-
-

⁹¹ Claudine Leleux, "Parents responsables", in *S'engager*, CEDIL argitaletxea, Cours de Culture laïque, 2. edizioa, 78-79. orr.

Gaien aurkibidea

A		
abortua	25, 35, 52, 53, 54	
adiskidetasuna	7, 38, 50	
Afrika	13, 16, 25, 26, 27, 32, 36, 37, 54	
Afrikako feminismoa	25	
Aleu	9	
Amerika Latinoko feminismoa	26	
Arenal	9	
B		
Bangladesh	10	
bidezko merkataritza	24	
bizitza afektiboa	47, 50	
bizitza sexuala	47, 54	
bortxaketa	26, 31, 34	
D		
desberdintasunen eraketa soziala	14	
diru-sarreraren iturria	12	
E		
elkartasuna	23, 24, 26, 27, 28, 29	
elkartek	16, 24, 25, 27, 28, 37, 40, 41, 42, 43, 44, 51, 53	
emakume etorkinak	27	
Emakumeen Munduko Ibilaldia	26	
eraso sexuala	31	
eskolako orientazioa	15	
estereotipo	11, 39, 43, 45	
etxeko indarkeria	33, 36	
ezkonsaria	35	
ezkontza goiztiarra	10	
ezkontidearen indarkeria	26, 33	
F		
FACUA	43, 44	
feminismoa	25, 26	
FNUAP	52	
G		
GAMS	37	
Gatti de Gamond	8	
gurasoekiko harremanak	50	
Guztontzako heziketa	13	
H		
Hezkuntzako Erakunde Librea	9	
Hezkuntzako Lege Orokorra	9	
Hezkuntzari buruzko Munduko Foroa	13	
HIESa	34, 52, 53	
hitzezko indarkeria edo psikologikoa	31	
homosexualitatea	51	
Hussein	28, 29	
I		
India	11, 13, 33, 35	
indarkeria	25, 26, 31, 32, 33, 34, 36, 37, 38, 42, 45, 49, 54	
indarkeria fisikoa	31	
indarkeria sexuala	31, 32, 34, 54	
ikasketen aukeraketa	14	
irakasleak	15, 29	
J		
jokabide-arazoak	49	
jostailuak	14, 19	
K		
kode deontologikoa	42	
komunikabideak	14, 15, 17, 41, 42, 43	
Kongo	10, 26	
konplexua	49	
kontrazepzioa	23, 25, 52, 53	
kontsumitzaileak	40, 41, 42, 43	
L		
lanbideak	17, 19, 20, 21	
La Meute	42, 43	
lanaren aukeraketa	17	
Lazo zuriaren kanpaina	37	
Lawal	28	
LOGSE	9	
M		
maitasun-harremana	38	
Masseras	9	
matxismoa	26, 39	
merkataritzako trukeak	24	
mozketa sexualak	36, 37	
Milurteko Garapenaren Helburuak	13	
Moyano Legea	9	
N		
Nazio Batuen Biztanle Funtza	52	
Nazioarteko Amnistia	28, 37	
nazioarteko hitzarmenak	36, 47, 54	
NBE	13, 36	
nerabezaroa	47, 48, 49, 50, 51	
Nobel saria	16, 26	
O		
oihal-lantegiak	19	
ohiturak	7, 11	
ohoreagatikoko krimenak	36	
P		
Palabras	27	
preserbatiboa	51, 52, 53	
pilula antisorgailua	52, 54	
Popelin	8	
Publizitate Behatokia	41, 44	
publizitatea	17, 39, 40, 41, 43, 44, 45, 49	
Publizitateko Etikaren Epaimahaia	41	
publizitate sexista	41, 42, 43, 44	
S		
sareak	13, 27, 39	
Senegal	13, 20	
STG	52, 53	
sexismoa	9, 40, 51	
sexu bidez transmititutako gaixotasunak	52, 54	
sexu-harremana	38	
sufragistak	25	
U		
Umeen Eskubideen Nazioarteko Hitzarmena	7	
UNICEF	10, 35	
UNIFEM	12, 13	
V		
Van Diest	8	
Z		
Zorra	43	

Liburuxka honetako testua Le Monde selon les femmes erakundearekin batera idatzi da

Le Monde selon les femmes gobernuz kanpoko erakunde feminista da, eta GLZnk (Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiak) 1997. urtean onetsi zuen.

Aberatsen eta txiroen zein emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunek garapen iraunkorra oztopatzen dutela kontuan hartuta, GKE honek gogor lan egiten du, iparraldeko eta hegoaldeko emakumeek gizartean bete-betean parte hartu dezaten.

Emakumeak genero-berdintasunaren bidez sendotzea, emakumeek hegoaldeko eta iparraldeko gizarteetan duten zeregina nabarmentzea eta emakumeek proposatutako aukerak zabaltzea du helburu nagusi. GKEak Palabras sarea sortu du, eta, bertan, Latinoamerikako, Afrika Frankofonoko eta Hegoaldeko Europako emakumeen erakundeak daude elkartzuta.

Le Monde selon les femmes

18 rue de la Sablonnière

1000 Brusela (Belgika)

Telefona: 02 223 05 12

Faxa: 02 223 15 12

Web orria: www.mondefemmes.org

Irudiak: Cécile Bertrand

Walonia-Bruselako Erkidego Frantseseko Gobernuako ministro-presidente-aren eta Erkidego Frantseseko Ministerioko Aukera Berdintasunerako Zuzendaritzaren ekimena da.

Zure iritzia interesgarria da guretzat:

Mesedez, argitalpen honi, jorratu ditzakegun gaiei edo sakonago aztertu beharreko gaiei buruzko oharra, testigantzak, galderak edo iritziak bidali (esate baterako, hezkuntza, lana, komunikabideak, kultura, osasuna...).

Posta elektronikoz, egalite@cfwb.be helbidera; faxez, 04 413 20 75 telefonora; edo ohiko postaz, Aukera Berdintasunerako Zuzendaritzara (44 Boulevard Léopold II, 1080 Brusela).

Banaketa (jatorrizko edizioa, frantsesez)

Aukera Berdintasunerako Zuzendaritza

Walonia-Bruselako Erkidego Frantseseko Ministerioa

44 Boulevard Léopold II - 1080 Brusela

Tel.: 02/413 32 24 – Faxa. 02/413 20 75

<http://www.egalite.cfwb.be>

egalite@cfwb.be